



Omenaldi beroa Santa Kurutzen

KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Auzo-komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriad...
- Jaureritzaren dirulaguntzen tramitazioa

AHOLKULARITZA


- Fiskala
- Kontabilitateak
- Laborala
- Asseguruak



AZKEN BERRITASUNA INPLANTOLOGIAN: “ALL ON FOUR” SISTEMA, NOBEL BIO CARE-RENA

AZKARRA, FINKOA ETA MERKEA!

**Orain gure klinikan munduko
azken berritasuna eskaintzen dizugu,
Nobel Biocare-ren All On Four sistemarekin.**



**Teknika horrekin protesi finkoa jaso dezakezu
4 INPLANTE BAKARRIK**
ipiniko dizugun egun berean,
inplante horiek ohikoak baino luzeagoak baitira
eta muturretako inplante biak, 45 graduko angelua
osatzean, inplanteak eta kirurgia denbora
gutxitzea ahalbidetzen dute.

**Horrez gain, duten hezur-galera dela-eta,
ohiko inplanterik jaso ezin dituzten pazienteek
sistema honetakoak erabili ditzakete.**





Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekararen E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, Silbia Hernandez

eta Ekhi Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik)

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskera gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kosta egiten zaigu, ez dugu gazteleran bezalakoa erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gatzia eta berakatza berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

EGI BENETAN.- Bene-benetan. "Egi benetan esaten detsut alargun koittau honek, beste guztiak baiño gehiago emon dabela".

EGI BERDADERUA.- Egi-egia. "Egi berdaderua autu horretan parterik ez dorana".

EGUNA ZABALDU.- Egun argitu. "Goizian laurak baño len eguna zabaldu dau".

EGUNAK IZAN.- Orain dela egun asko esateko. "Egunak dira hamendik ezkutau zala".

IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

GAUEKO BATXILERGOARI EUSTEKO ESKAERA

CCOO sindikatuak Eibarren gaueko batxilergoari eustea exijitzen du. Hezkuntza saileko Heziketa Profesionaleko zuzendaritzak ez du lagako 1978az geroztik Uni Eibar-Ermua BHIIn ematen ari den Gaueko Batxilergoarako aurrematrikularik egiten. CCOO Irakaskuntzatik Heziketa Profesionaleko zuzendaritzari bere proposamena berriz pentsatzeko eta maiatzaren 4tik aurrera aurrematrikula zabaltzeko eskatu nahi diogu.

Horrelako ekimenak nekez bateratu daitezke sail horrek oraintsu egindako adierazpenekin: "Gure lehenetasuna Irakaskuntza Publikoko eskaintza da" edo

"sare publikoa sistemaren bizkarrezurra da".

Horrelako neurriekin ez da errezt ulertzen batxilergo mota horretako ikasle potentzialak Bilbo edo Donostiraino joan behar izatea (edo batxilergoa urrutiko hezkuntza bitartez ikasi behar izatea) nahi dutena ikasi ahal izateko.

Berriz ere oinarri erabat ekonomikoa duten irizpideak Hezkuntzak izan behar duen betebehara sozialaren aurrean jarri dira.

Javier Nogales, CCOO Irakaskuntzako Idazkari nagusia

XIX. EIBARKO DUATLOIA-REN ESKERRAK

Antolatzaileen partetik, gure eskerrik beroenak luzatu nahi genizkioke materiala eta diru laguntzak eskaini dizkiguten elkarte eta pertsona guztiei eta, aldi

berean, gogo handiz jardun duten eta Eibarko XIX. duatloi hau posible egin duen jende guztiari ere.

Eibarko Duatloaren antolatzaileak


asteko esaldiak HEMEROTEKA

"Gaur egun inork ez daki abangoardia zer den, oso zaila delako inor ezustean harrapatzea. Argi dagoena da berrogei bat urteren ondoren, jendeak ez badu lan bat asimilatu, hori ez dela abangoardiakoa, kale egin duen obra bat baino. Alderantziz, lan batek hasieran eskandalua pizten badu ere, gero onartzen bada, ona den seinale"

(Angel Illarramendi, konpositorea)

"Orain dela denbora gutxi zegoen egoera guztiz aldatu da: gaur egun oso zaila da psikiatriko batean sartzea, eta oso erraza bertatik ateratzea, sartzeko oso gaixo egon behar duzulako. Askoz talde handiagoa dago gizartearen baruan antsietatea eta depresioarekin; baina horiek ez dute inolako estigmatik, gizartearen murgilduta daude"


(Miguel Gutiérrez, Santiago Ospitaleko psikiatra)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

 **kutxa**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria



Erritualak

Haurrek arauak, ildoak, pautak behar dituzte. Ez dute emozioak autoerregulatzeko berezikorik eta helduen beharra duten garapenaren bide korapilatsuan azken hauen gidaritzara jarraitzeko.

Sen onak esaten digu bularreko ume bat negarrez dagoenean erantzuna behar duela, eta erantzun horren kalitatearen arabera lagako dio negar egiteari. Umearen ageriko ezinegon hori gero eta argiagoa izango da, ezinegonak sortzen dituen egoerak identifikatuz: gosea, logura, mina, arreta..., beti ere amaren abilezia kontuan izanda, iraunkorra, koherentea eta bat datorrena bada.

Beraz, helduak moduan ditugun beharren onarpena bere sorrera du txiki-txikiak ginenean jaso genituen erantzunetan. Oinarrian, jaten ematen baziguten zeozer eskatzen genuen bakoitzean, ontzat emanda gehienbat gosea zela genuena, horrek ekarri dezake heldutasunera iristean, edozein egonezina tartean dela ere, sosegua bilatzea jana-riaren bidez.

Umeak oheratu, muxu batekin gabon esan, ipuin bat kontatu, eurekin jostatu, ikastetxean jaso, banantze bakoitzean behar diren agurrak erabili... funtzionalak izateaz gain, umei segurtasuna eta konstantzia ematen dieten erritualetako batzuk dira.

Erritualak familia bakoitzean ezartzen diren ohiturak besterik ez dira eta, askotan, gurasoak ez dira jabetzen euren seme-alaben pertsonalitatea egituratzeko duten indar eta ahalmenaz.

**Arrate
Garitaona India**

Iñaki Arriolak alkatetza laga dezake

Aste honetan bertan aditzera eman duenez, Iñaki Arriola alkateak Gipuzkoako PSE-EEko idazkaritza nagusirako hautagaitza aurkeztu du. Hilaren 17an, datorren aste-ko zapatuan Donostian egingo den ezohiko kongresuan Arriola idazkari nagusi izendatzen baldin badute, Eibarko Udalean alkate kargua betetzen jarraitzeko zailtasunak izango dituela aurreikusita, alkateak 1993az geroztik bete duen karguari "seguruenik" uko egingo diola aurreratu du. Horrekin batera, berak alkate izateari lagatzeko erabakia hartuz gero, Eibarko alkate Miguel de los Toyos izango dela adierazi du. De los Toyosek 12 urteko esperientzia dauka Udalean eta hainbat kargu bete ditu denbora horretan. Azken urteotan Hirigintza Zinegotzia izateaz gain, duela 7 urte Udaleko sozialisten bozemailea ere bada.

Arriolak, bestalde, Eibarko Udalean zinegotzi kargua bete zuen 1983. eta 1993. urteen bitartean eta 1993an, Aurora Baskaran orduko alkateak karguari uko egin ondoren pasa zen alkate izatera. 1995. urtean alkatetzarako hautagaitzat



Miguel de los Toyos eta Iñaki Arriola.

aurkeztu zuen bere burua eta PSE-EE alderdiak 7 zinegotzi lortu zituen; 1999an, berriz, 9 zinegotzi atera zituzten eta 2003ko udal hauteskundeetan 11 zinegotzirekin gehiengo absolutua lortu zuten sozialistek. 2007ko hauteskundeetan aurreko zinegotzi kopuru berari eustea lortu zuten. Beraz, 15 urtez Eibarko alkate izan da Arriola. Horrez gain, Gipuzkoako PSE-EEen hainbat kargu bete du. Azken legegintzaldian, besteak beste, Gipuzkoa mailan idazkariorde kargua alkate karguarekin batera betetzen dihardu, baina idazkari nagusi karguak eskatuko lioken dedikazioa alkatetzarekin bateratzea oso zaila ikusten du.

"Debabarrena BTT Zentroa" uztailean zabalik

Debabarrena BTT Zentroa' izeneko proiektua aurkeztu zuten joan den martitzenean Mercedes Rodriguez Basquetoureko Zuzendari Nagusiak, Irune Berasaluze Debegesako Presidenteak, Alfredo Etxeberria Elgoibarko Alkateak eta Juan Angel Balbas Debegesako Zuzendari Nagusiak, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Enpresa eta Lehiakortasun eta Giza Berrikuntza 2008-2009 Planaren barruan. Uztailean irekiko dira bideak aurkezpenean esandakoari jarraituta; beraz, ordura arte, informazio gehiago eskuratu ahal izango da Euskadiko

BTT Zentroen Sarearen webgunean (www.euska-dibttzentroak.com).

BTT zentroen bidez, landa-guneen garapen iraunkorra bultzatu eta lagunduko duten produktu turistiko berrien sorrerarekin natur-turismoa sustatu nahi da. Horrela, Debabarrenakoa izango da Gipuzkoako lehen BTT Zentrua.

16 ibilbide

Turismoa bultzatzea bilatzen dute ekimen honekin, "natura ardatz bezala hartuta". Debabarrenako BTT Zentroaren harrera puntua Elgoibarko Mintxeta Kirolgu-



EKHI BELAR

nean egongo da, baina seinalizatuta dauden 16 ibilbideak eskualdeko herri guztietatik igarotzen dira.

Zailtasun ezberdinetako bideak egongo dira, horrela, zailtasun maila bakoitzak kolore bat izango du (berdeak, urdinak, gorriak eta beltzak, zailtasun txikienetik handienara). Mendietako berde biziaz eta kostaldeko fenomeno ezberdinetaz gozatzeko aukera egongo da zentroak dituen 397,70 km-etan barrena.



EKHI BELAR

autuan

NAGUSIENDAKO EGONALDIAK

2008ko udan pertsona nagusiendako aldi baterako egonaldietarako eskaerak Gizartekintzan aurkeztu beharko dira, txanda aldeztu aurretik eskatuta (Portalean, 4. pisuan, 943708440 telefono zenbakian). Eskerak onartzeko azken egunak hauek dira: uztaileko aldi baterako egonaldietarako, maiatzak 15; abuztu-ko aldi baterako egonaldietarako, maiatzak 30; eta iraileko aldi baterako egonaldietarako, ekainak 13.

PORTAERA-DESOREKEN INGURUKO IKASTAROA

Lahar elkargoak Foru Aldundiak diruz lagundutako ikastaroa emango du, portaera-desorekak dituzten nagusiekin nola jokatu behar den azaltzeko. Ikasta-

roa Eibarren izango da, Egogain Gerontologia Zentruan, maiatzaren 19, 20, 21, 22 eta 23an, 17.00etatik 20.00etara, Orbaiz Formoso eta Pedro Bilbatuaren eskutik. Ikastaroa doan izango da, baina izena eman behar da 943428013 edo 663057223 telefono zenbakira deituta.

ERRENTA AITORPENEA

Martxan dagoen Errenta Aitorpenaren kanpainaren inguruko informazioa emateko zerbitzu berezia ipini du martxan UGT sindikatuak bere bulegoan (Isasi, 2). Afiliatuei aholkularitza zerbitzua emango die astelehena eta eguena bitartean, 15.00/18.30, eta barixakuetan, berriz, 11.00etatik 13.30etara.



Ez adiorik, Gaizka

Irribarrea. Nik uste irribarrea izan zela Gaizka hobeto islatzen zuen ezagutza. Ikusten nuen bakoitzean beti irribarrea aurpegian agurtzen ninduelako. Beti alai.

Orain dela urte dezente ezagutu nuen Gaizka, kasualitatez. Ondoren argazkilaritza ikastaro bat egin genuen elkarrekin, eta handik aurrera bere jarduerak gertutik jarraitzen ahalegindu nintzen. Gozagarria zen bere proiektuen diaporamak ikustea. Halakoetan erlojuak geldialdia egiten zuela zirudien. Berdin zioen aretoan bost ikusentzule egon edo tokirik ez egotea. Gaizkak berdin-berdin kontatzen zituen bere bizipenak, pasio handiz, irribarre handi batekin.

Biok lanean ari ginela ikusi nuen azken aldiz. Bulego albotik pasa eta leihoaren bestaldean elkartu genituen begiradak. Ez ginen oso denbora luzez aritu, baina aspadiko partez elkarren berri izan genuen. Eta halakoetan solasaldi oso luzeak izaten ez diren arren, sakonak izaten dira, barru-barruan geratzen diren hoieta-koak. Ahaztezinak.

Azkenaldian gutxitan izan ginen elkarrekin, eta gehien bat lan kontuak tartean zirela. Baina berarekin pasatuko une bakoitzak toki batera eramaten ninduen beti, ikusitako diaporametara. Eta gauzak kontatzeko bere abildadera. Eta bere irribarrera.

Eta irudi horrekin oroitu-ko naiz berarekin. Seguru bainago, bere azken horma ere hala igo zuela, irri handi batekin, egindakoarekin gozatuz. Abilidadez.

Orain, bere irribarrea lapurtu nahi izan digute. Baina jai dute. Beti gogoan izango dugulako.

Ez adiorik, Gaizka.

Unai Artetxe

(KAZETARIA)

Ezker abertzalearen astea

Martitzenetik aurrera Eibarko Ezker Abertzalearen Astea ospatuko da: martitzenean, 19.00etan Untzagan prentsaurrekoa emango dute azken atxiloketen inguruan egiten duten balorazioa azaltzeko. Eguaztenean, berriz, LAB sindikatuaren eskutik kontzentrazioa egingo da Ogasun bulegoaren parean (Arragueta kalean), 'Iruzur fiskal eta ustelkeriari ez!' lemarekin. Eguena presoei eskainitako eguna izango da: 18.00etan presoaren egoeraren gaineko erakusketa inauguratuko dute Montekasino tabernan eta presoei idaz-

teko postalak banatuko dituzte. Eta 19.30etan, Montekasino pareko parkean, hitzaldi informatiboa emango dute. Ondoren, Ibon Muñoaren poesia irakurketa musikatua egingo dute. Hilaren 16an gazteak izango dira eguneko ekitaldien ardatz: 18.00etatik aurrera pegatina erakusketa egingo dute parkean; 19.30etan, Untzagan presoaren aldeko enkatelada egingo da. Gero, parkean 'Kaiolatik at!' DVDaren aurkezpena egingo dute eta ondoren, hitzaldia emango dute 'Eibarko gazteak eta etxebizitza' izenburupean. Astearekin amaitzeko, hilaren 17rako, za-



paturako, egun osorako egitaraua prestatu dute umeendako pailazoekin, herri bazkariarekin, kantaldiarekin eta beste hainbatekin.

Errebalgo proiektuari aurre egiteko herri plataforma eratuko da

Aralarrek martitzenerako deitu zuen batzarra jende ugari batu zuen Kulturealean, Errebalgo merkataritza gunen berriaren inguruko auziak piztu duen interesak erakarriz. Orain egun batzuk deitutako batzarrean Udalaren proposamenari alegazioak aurkezteko asmoa azaldu zuten Aralarreko ordezkariak eta aurreko astekoan, berriz, alegazioak zertan diren argitu zuen Mariasun Gartzia Aralar taldeko zinegotziak. Sarrera gisa, aurrekoan egindako salaketa gogora ekarri nahi izan zuten: "Udal ondarea entitate pribatu multinazional bati saldu egin zaio eta hori larria baino larriagoa iruditzen zaigu, batik bat ezkerreko ikuspegi batetik".


Horrez gain, Udalak nola jokatu dezakeen aurreratzeko premia azpimarratu zuen, alegazioen aurrean eman ditzakeen erantzun posibleak gogoratuta. Hainbat aukera egonda ere, Aralarreko ordezkarien ustez, "Udalak, ziurrenera, ezetza emango duenez, guk ere lege aldetik gure iritzi



SILBIA HERNANDEZ

juridikoa eman beharko genuke (berrazterketa-errekurtsoa sartu, Arartekora jo, auzibidea...). Orain arte azaldutakoaren aurrean, Udalak gai horretan aldaketa handiren bat egiteko aukera bakarra dago: herritarren presioa. Beraz, asanblea eratuko dugu, Herritarren Plataforma osatuta".

1998-V-8
233. ZKIA.



Gallastegik eta Akarregik 50 urte lehenagoko txapelketaren finala gogoratu zeben.



Puzzle deittuko zan haurtzaindegixaren proiektuaren sortzailliak.

- Euren artzako palota txapelketaren finala jokatzen zela 50 urte betetzen zirela eta, Akarregi eta Gallastegi batu zendentzako palota inguruko gainari erreparazioa egin zuten. Orduko sasoi harrak eta berritak antzertu zebiren.
- Dendarixen Alkarteko ordutegi zuzendaria Mari Karmen Barrietak bere apartamentu falda aittan zeban herriko dendarixak zuten arazo nagusi moduan. Saso hartan 125 bostkide inguru zittan alkartetik.
- Internatean Eibarren gaineko jorua sartu zeban sei internatekin asatutako taldeak. Eibartarrak zeban izena eta estabakidatza eta berritaketarako tartia zura zeban izatia, euskara janduta berritaketa eginen.
- Urte asko pasa eta gero, zura harrizko haurtzaindegia izateko proiektua martian ipini zuten Yolanda Rescabo eta Viki Serrano psikologak. Puzzle Eibartarrak falda zeban pieza bakoitzak osatzen zutenak.

Ardantzako lokala inauguratuta

Ardantzako leian, etxebizitzaren beharretako aldeko lokalean garatuko dute euren jarduna aurrerantzean Deparkel Debabarrena Parkinson elkarteak eta Afagi Gipuzkoako Alzheimer Gaixoen senitartekoen elkarteak. Martitzen eguerdian Udal ordezkariak eta aipatutako elkarteetako arduradunek inaugurazio ofiziala egin zuten, lokala atontzen jardun duten Lantegi Eskolako kideekin, Inem-eko ordezkariak eta beste hain-



SILBIA HERNANDEZ

bat lagunekin batera. Usartza Txistulari Bandako txistulariek ireki zuten ekitaldian Afagi eta Deparkeleko ordezkariak eskerrak eman nahi izan dizkiote Udalari, euren lana garatu ahal izateko lokala lagatzeagatik.

Elkarte biek erdibana era-

biliko dute lokala: astelehen, eguazten eta barixakuetan Parkinson gaixoen elkarteak bere terapiak egingo ditu eta martitzen eta eguene-tan, berriz, Alzheimer gaixoen senitartekak batu eta jendea hartzeko aukera izango dute.

Argazkiak erakusleahoetan maiatzean

Eibarko 29 dendak autore eta estilo ezberdinetako argazkiak izango dituzte erakusleahoetan maiatzean zehar, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren ekimenez eta Klub Deportiboak antolatzen duen Argazkilaritza Maiatzean programaren barruan. Ekimenarekin jardura kulturala kaleara ateratzea bilatzen dute, iaz esperientziak izan zuen harrera onarekin animatuta. Eibar Merkataritza Gune Irekiaren arduradunen

esanetan, “gure ideia dendak honelako ekimenetara zabaltzea da, interesgarria baita merkataritza ikuspuntutik ere”.

Toribio Etxebarria kalean El Corte Inglés, Corral, Galarreta, Casamania eta Cedry-k egin dute bat ekimenarekin; Bidebarrietan, Doroti, Arla, Luci ileapaindegia, Oberena, Iraolagoitia, Amuebladora Gros eta Pissak; San Juan kalean, Mugica iturgintza eta Izadi loradendak; Julian Etxeberrian, Ikatz-

El Corte Inglés-eko langileen formakuntzarako hitzarmena

Armeria Eskolak eta El Corte Inglés-ek hitzarmena sinatu dute, merkataritza zentru berri-rako langileak prestatzeko. Hitzarmenean jasotakoaren arabera, Armeria Eskolak datozen hilabeteetan (aurten-go irailean hasi eta 2009ko ekainera arte) hainbat gela eta ekitaldi areto erabiltzen lagako die El Corte Inglés-eko arduradunei, zentru berrian lan egingo duen jendea hautatu eta trebatu dezaten. Armeria Eskolako arduradunen berbetan, “lankidetzaz honen helburua, Eibarren lana sortzeko formakuntza bultzatu eta sustatzea da”.



ek; Arraguetan, Azpirik; Errebalen Aldazabal, Plazaola eta Goiko Luz-ek; San Agustinen, Jauregi eta Kopina-k; Ifar Kalen, Solozabal-ek; Estaziño kalean, Bergaretxek; Zuloagatarrenean, Guby eta Valenciaga-k; Juan Gisasolan, Arriaundi-k; eta Untzagan, berriz, Alberto bitxitegiak.



Gure herrixan, Calbeton peatonalizatu zan moduan, oiñ asmo barrixak ikertzen dihardue: Zuloagak eta Julian Etxeberriaren zati bat peatonalizatzia, Untzagan espaloiak eta karretera altura berian ipintzia... Halakuen aurrian, jendia batez be keajaten da neurrixak aparkalekuak gitxitzia dakarrelako gehixenetan; baiña bentajak be badagoz, eta ez dira gitxi. Zarata gitxiago, kontaminaziñua beste hainbeste, istripuen arriskua be bai... Danen azpittik daguana zera da: batzuk hala pentsatzen badabe be, herrixak ez dirala autuendako, oiñezkuendako baiño. Gero, oiñ arteko bidiari bueltia emon bihar jako, eta autuetan prezisamente pentsatu bako espaziua gaur egun motorizau hórrek guztiz okupatzen dabenez, ba oiñezkuak errekuerau bihar dau. Barritasun sinbolotzat be hartu da azkenaldixan peatonalizaziñuak eukitzia, hiri batek halakorik ez badaka zaharkittua ikusten dalako. Merkatarixak kasu askotan keajaten badira be, dendaraiño bertaraiño juateko aukeria izanda be, hórrek ez dau negoziua ziurtatzen. Halakuak mesede egitten detse, batez be, kanpotarrerri herrixa lasai ikusteko aukeriarekin.



Jagoba Zabala 33 urte, kamioi gidarixa

Erdigunia iztia ondo dago, umiak askoz lasaixago ibiltzen dira-eta. Astian zihar eziñezkua ikusten dot trafikua guztiz moztia, baiña ondo egongo zan abiadura mugia bajuagua ipintzia, herri barruan dabizen autuendako.



Angel Núñez, 60 urte Carmen Varona, 61 urte

Ondo dago daguan moduan, trafikua kale gehixagotan moztzen badogu kaotikua izango da. Dana hobetu leike, baiña zelan? Trafiko arazo larrixa dago Eibarren. Orokorrrian oso ondo ikusten dittugu gaur egun hartzen diran neurriak, asteburuetakua.



Aitziber Urkiola, 17 urte Nagore Ugalde, 16 urte

Erdigune osua behintzat peatonalizatu biharko zan, astian zihar egittia oso zaila bada be, asteburuetan kale gehixagotan moztu biharko zan trafikua. Erdigunian abiadura mugia bajuagua ipintzia baiño, hobe trafikua guztiz moztia.

Herrixan zein kale peatonalizauko zenduan?



Juan Sánchez 52 urte, bihargiña

Bidebarrieta eta San Juan kaliak be peatonalizatuko neukez, erdigune osua gitxi gorabehera. Untzaga plaza bixen arteko tartia berdinduko neuke eta aste bittartian belozidadia bajatu. Erdigunia peatonalizatuta, barianterako sarbidiak hobeto erakutsiko neukez, Urkin bizi naiz eta asteburuero agertzen da jendia galduta.

Helbide berria

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

- | | |
|---------------------------|---------------------|
| 1 Kardiologia | 9 Psikiatria |
| 2 Zirugia | 10 Radiologia |
| 3 Dermatologia | 11 Traumatologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 12 Barne Medikuntza |
| 5 Analisi Klinikoak | 13 Alergologia |
| 6 Ortodontzia | 14 Koloproktologia |
| 7 Otorrinolaringologia | 15 Urologia |
| 8 Pediatria | 16 Erizaintza |

ANGELITA ARIZMENDIARRIETA GALDOS apirilaren 30ean hil zen, 82 urterekin



NAHIZ TA OIÑ
HAMEN EZ EGON,
HANTXE AURKITTUKO
ZAITTUGU BETI
IPAR IZARRETIK
ESKUMATARA,
DANORI ZAIN'TZEN.

EZ ZAITTUGU IÑOIZ
AHAZTUKO.
MUXU HANDI BAT,
ANGELITA.

*Eta eskerrak juan dan barixakuan
hilletara hurbildu ziñaten guztiori.*

FAMELIXA GUZTIAREN PARTEZ.

“Jaixak antolatzeko orduan beti euki dot andriaren eta famelixaren laguntasuna”

Maiatzaren 3a Santa Kurutz izanda, aurreko asteburuan ospatu zittuen jaixak Gorosta eta Mandiolako basarritarrak, kaletik igotako beste askorekin batera. Eguraldixa lagun, giro paregabian pasau zittuen egun bixak han inguruan ibilli ziran guztiak eta, bereziki, aurten omenaldixa jaso daben Emilio Azurmendi eta Felisa Agirrebeña, Sagarbitza basarriko andra-gizonak. Aurtenguak Azurmendiren 47. Santa Kurutz jaixak izan dira eta ez ditte berehalakuan ahaztuko. Aurreko astian, Maiatzaren 1eko jaixa zala-eta, aldizkaririk ez genduan etara eta gauza asko aurreratu bagenittuan be, Santa Kurutzeko jaixetako programia ez genduan sasoiz hartu eta ez genduan programarik sartu astekarixan. Hamendik barkamena eskatzen detsuegu jaixak antolatzen horrenbeste bihar egitten dozuen guztieri.

- Zelan pasau zenduan domekan egin zetsuen omenaldixan?

Ez neban halakorik merezi, baiña egiñ eben eta mordua eskertzen detset. Oso ondo urten eban eta poz-pozik nago, erregalo mordua emon zesten eta oso ondo pasau genduan eguna.

- Zelakuak izan dira aurtengo jaixak?

Eguraldixak asko egitten dau eta aurten alde izan dogu. Izan be, eguraldi eskasa egiñez gero ha toki txarra da, eurixakin eta haiziakin ezin leike egon. Danak konforme geratu giñan.

- Jaixak ezagutzen ez dituenari, zelan azalduko zetsazun Santa Kurutzen izaten dan girua?

Juateko esango netsen. Aurten be egon da Eibarko, kaleko jendia, aurretik sekula egon barikuak eta oso ondo pasau eben.

- Nolaz hasi zifian jaixak antolatzeko kontuarekin?

1959xan. Urte batzutan ez ziran jaixak zelebrau eta inguru guztia bedarrak-eta hartuta

eguan. Gerra aurretik ospatzen ziran, gerora be, baiña gero etena egon zan, ez dakitt zergaittik, diru faltagaittik-edo, baiña nik arduria hartu orduko hiru bat urtian ez zan jairik egon. Orduan beste batetik, Enrike Iturruak eta bixok zeozter egittia pentsau genduan. Dirurik ez eguan eta mezia eta umiendako jolasak antolatu genduazen. Gerora boluntariuak etorri ziran, inguruko basarixetako nagusiak. Lehelengo urtian holan egin genduan, hurrengo urtian neu bakarrik geratu nintzan, gero beste urte batzutan Iturrua etortzen zanian laguntzen zestan, programak etxian idazteko makiñian egitten genduan... eta apurka-apurka jaixak mejoratzen juan ziran.

- Gaiñera, Udaletik jarduteko aukerla be izan zenduan...

Ziñegotzi egon nintzan eta 82-83 inguruan udalian partidatxo bat sartu neban, diru gixi eguan, baiña handik zeozter egitten hasi giñan. Gaur egunian, Udalaren laguntasunetik aparte, kolaboratzaile



LEIRE ITURBE

asko dago, jende asko etortzen da eta eskerrak horri, laguntasuna haundixa da-eta.

- Gaur egunian jal batzordla dago, baiña zeu hasi zifian ez zan holakorik esistitzen, ezta?

Oiñ ekipo ona dago. Gaiñera, omenaldixa neri baiño eureri egin bihar jakuen, merezi dabe-eta. Bestalde, ni egon naizen guztietan beti famelixaren laguntasuna izan dot, andriak eta bestiak asko lagundu deste beti, etxeko dannen artian egin dogu.

- Zelakuak ziran lehengo jaixak, olnguekin konparauta?

Usartzan erromerixa fijo bat eguan, jaixero, eta orduan erromerixia kobrau egitten zan. Guri, antolatzaillieri ez zeskun kobratzen, baiña dantzara zoian mutillari bai. Benito Baskaran trikitilarixak jarduten eban eta bera eta laguntzaillia enkargatzen ziran kobratzeko kontu horrekin. Gero

hori be kanbixatzen juan eta horretarako ohitturia galdu zan. Gero, urte batzutan harrijasotzailliak ipintzen genduazen, urte batian premixuak ipiñi genduazen. Gaiñera, gauza kuriosua izan zan, juraua publikua izan zalako, botaziñuakin erabagi zan. Bola-tokixa be egon zan, pelota partidua gaztiekin... denetarik piska bat. Gaur egunian diferentia izaten dira jaixak eta, azkenengueri begiratura, aurtenguak neretako onenak izan dira, omenaldixa dala-eta. Oin etxe guztiak hartzen dabe parte, andrak hor ibiltzen dira odoloste, txorizo eta bestiak preparatzen. Jende guztiak bihar haundixa egitten dau. Lehenago gatxagua izaten zan gauzak antolatzia, dirurik ez eguan-eta.

Lehenago hamen eskolia eguan eta auzolanian konpontzen-eta ibilli giñan, baiña gero jaixa ermittara pasau zan. Intentau neban urte ba-

tzutan ermittan biharrian behoko berdegunian antolatzen, gure ama zanak esaten eban erromerixian lehengo tokixa ha zala, baiña pare bat urtian han egiñ arren eguraldixak agintzen dau eta txingorra eta edurra bota zeskun urte baten ondoren ermittan ospatzia erabagi genduan. Ingurua ondo txukunduta dago eta han pasatzen dogu jaixa.

- Zu jaxkak antolatzen hasi zifianlan Franco eguan. Zelan gogoratzen dozu sasola?

Gauzak asko kanbixau dira. Orduan Guardia Zibilla etortzen jakun, ez da sekula problemarik egon, baiña segittuan etortzen ziran, badaezpada. Eurekin debeku arazorik-eta ez dogu sekula euki. Bai pasau jaku, oster, Udal-lan txapliguak eskatu eta emon ez, geuk erosi bihar.

- Jaxkak antolatziatz aparte, atzokoran jardundakua zara.

Nik 18 urte nekazen, etxian aizkora zahar batekin entrenatzen ibiltzen nintzan eta kontrarixo Jose Nebera izan neban. Baiña lehiatzeko ordua aillegau zanian ni nerbioso jarri nintzan. Bezperan 'Luxia' aizkolari famosuarekin egon nintzan eta estrenau bariko aizkora emon zestan, baiña ni



LEIRE ITURBE

Omenduak auzokidien eta Udalaren oparixak jaso zittuen zapatuan eta domekan.

zaharrekin ohittuta neguan eta harekin hasi nintzanian egurretik etara ezinda ibilli nintzan.

- Santa Kurutzen ez eze, beste auzo batzutan be egi-tten dira jaxkak. Jendlak baloratzen dau holakuak antolatze-ko egi-tten dan bilharra?

Pentsatzen dot indar gehixago emon bihar jakuela, laguntasun gehixago bihar izaten da, barrixo guztiak bastante justuan ibiltzen diralako. Problemia beti izaten da hori: zezoz ekartzia pentsau eta atrebidu ez. Soifujotzaillia eta panderojotzaillia ekarri eta

hor diru pillu bat juaten da lehelengotik, eta harekin baka-rik ez dago, egunian zihar beste joko batzuk be ipiñi bihar dira. Santa Kurutzen piskolabisak jende mordua batzen dau, ohitturia bihurtu da eta ahal dan bittartian segidu egingo dogu.

- Basarri auzuetako jaxkak eta kaleko jaxkak konparaut, alde haundixa ikusten dozu?

Herrikuak oso diferente geratzen dira basarri auzuetakuekin konparaut. Hasteko, eurixa egitten badau, kalia ez da ezer pasatzen, jendia

tabernetan sartzen da, mobimentua diferentia da, baiña barrixuetan ez dago holakorik, eurixa egitten badau lautik batekua ez da juaten.

- Basarrietako alkate be izan zifian. Zelako arazueri egin bilhar jakue aurre hola-ko karguan?

Egin bihar dan lehelengo gauzia basarritarrerri entzutia da, dittuen arazuak ezagutu. Guri inundaziñuak tokau jakuzen eta pistak-eta egin bihar izan ziran. Oin mantenimientua egin bihar da, toki batzutan hormigoia gastatzen doia eta peligro haundixa dago.

“Oñ ekipo ona dago Santa Kurutzeko jaixetan. Omenaldixa neri baiño eureri egin bihar jakuen”

Herri Irratia

Eibar

Loyola Media

S.D. Eibar - Las Palmas



Jarraitu partidua:

Borja Rodríguez

eta Herri Irratiko

kiroletako taldearekin

Maiatzak 10, zapatua 18.30etan

90.7 Fm

Badira urte batzuk makrobiotika berbia entzuten hasi giñala, baiña gauza barrixekin gertatu ohi jakun moduan, duda ugari sortzen jakuz gaixaren inguruan. Tallarra gaztetxeak hillian behiñ-edo bazkari makrobiotikua antolatzen hasi ziran eta herrixan gero eta jende gehixagok animatzen dihardu Ekialdetik datorren elikadura mota horrekin bat egittera. Baiña zer da makrobiotikia?

MAKROBIOTIKIA, gorputza eta burua elikatzen

Makrobiotikaz jardutian moda eta beste-lako kontuak albo batera lagatzia komeni da, elikadura mota hau ez da-eta asmakizun barrixa, ezta gitxiagorik be: Japonian jaixo ei zan makrobiotika metodologixia eta Europara George Ohsawa izeneko filosofo japoniarraren eskutik ailegau zan XX. mendeko lehelengo erdialdian. Berbia, beste askoren modura, grekeratik dator: 'makro' (haundixa, luzia) eta 'bios' (bizitza) berbak alkartuta sortzen da. Hortaz, bizitza luzia izateko bidia markatzen daben filosofixia dala esaten badogu ez gagoz oso oker. Makrobiotikia segitzen dabe-

nak, jaten doguna eta jaten dogunaren kalidadiak gure bizitzan uste doguna baiño eragiñ haundixagua dakela pentsatzen dabe. Orohar, elikadurak gure gorputzaren alde fisikuan zuzenian eragitten dabela jende gehixenak onartuko dau problema barik. Baiña filosofixa makrobiotikuak ideia hori alde psikikora, arlo psikologikora eruatzen dau, gure zoriontasuna baldintzatzen ailegau arte. Elikadurara begira ipintzen bagara, sukaldaritza naturala eta tradizionala aldarrikatzen dau.

Simone Begiristainek urrietako esperientzia dauka makrobiotika munduan eta berarengana jo dogu, elikadura



mota horren gaiñian zeozer gehixago jakiteko asmuarekin. Berak azaldu deskunez, "makrobiotikia luze eta ondo bizitzeko fiantzia da. Zereal integralak osatzen dabe elikadura mota horren ardatza, barazki, alga eta beste hainbatekin lagunduta. Nahi izanez gero, arraiñ edo okela piskat jateko aukeria badago".

Berak oin dala 10 urte baiño gehixago heldu zetsan makrobiotikari, kasualidadez: "Anemiarekin ibiltzen nintzan eta Iruñara juan nintzen konsulta batera. Han izan neban lehelen-

goz makrobiotikaren barri. Gai-xarekin interesauta, ikastaruak egitten hasi nintzan, Intxaurrendoko makrobiotika alkartiarekin bat egiñ... eta gaur arte".

Produkto biologikuen aldeko apustua egitten dau makrobiotikak: zerealaren kasuan integralak eta ale osokuak gomendatzen dittue eta horrek osatzen dabe elikaduraren %60. Gaiñontzekua zekale, barazki, fruta, alga eta sojatik eratorritako produktuekin osatzen dabe. Horrek danak Yin eta Yang-aren arteko orekari jarraituta konbinatzen dittue.

ATE IREKIAK!

MAIATZAK 15 18:00 osteguna ARETO NAGUSIAN

OÑATIKO CAMPUSA Tel.: 943 71 80 09 // egaratze@etee.mondragon.edu

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

Ondoko titulazio hauek eskaintzen ditugu:

- ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAN GRADUA
- ZUZENDARI IDAZKARITZA

WWW.ETEE.MONDRAGON.EDU

Yin eta Yang-aren arteko oreka

Ekialdeko kulturetan Yin eta Yang-aren orekaren kontzeptua oso hedatuta dago. Horren arabera, mutur bat Yin-ean daken elikagaixak naturalak dira (oso gozoak diranak, esnekixak...) eta oso Yang diranak, barriz, oso gitxitan jan bihar dira (oso jaki gazixak, okela gorrixa, kafia...). Elikagai bakotxaren Yin eta Yang-a zihezteko jaki bakotxaren oinarritzko ezaugarrikeri begiratzen detse: garraztasuna, nun hazi dan (landare-sustraiak vs. arboletako adarretan hazten diran frutak), koloria, forma, zaporía, elikagaixak dakan hezetasun mailla...

Ohsawak 10 dieta idatzi zituan, elikagai-taldien arteko proportziñuak aldatuta. Horren artian egokixena, bere irtiz, berak 7 zenbakixarekin izendatutakua ei da: %100ian zerealez osatutakua, ahalik eta gitxien edanda. Halanda be, dieta bat makrobiotikotzat hartzeko ez dira gauzak mugaraiño zertan eruan bihar, ratio honi heltzia

Zereal integraletan oinarritzen da elikadura mota hau

nahikua da: zereal integralak (%50-60), fruta eta barazkixak (%25-30), proteinak (%10), zopak (%5-10) eta algak (%5).

Neuronak elikatzen

Yin eta Yang-aren kontzeptuekin oso ohittuta ez daguandako, esan bihar da azken batian hor planteatzen daben oreka hori beste izen batzuerkin ulertzeko errezagua topau leike: "Sodio eta potasioaren arteko orekia da Yin eta Yang-aren kontzeptuekin definitzen dabena. Neretako elikadura honen onurak oso argixak dira: danendako egokixa da, edozein adiñian. Serenidadia eta lasaittasuna emoten dau eta gaitzak sendatzeko egokixa da", diño Begiristainek.



Jaten dogunak gure forma fisikuari eragitten detsala eza gutzen genduan lehendik be, baiña zelan eragitten detsa jatekuak gure emozioñueri? Begiristainek esan deskunez, "neuronak be jaten dabe, euren alimientua poliki absorbitzen dan glukosa da eta glukosa mota hori zereal grano osuetan topatzen dogu".

Jakiña, elikadura mota hau gehixago hedatu bittartian, dieta egokixa egiñ ahal izateko osagaixak topatzia ez da beste edozeiñ elikagai mota erostera juatia bezain erreza: "Oindio be belardendetara-eta juan bihar izaten da, arroz integralak, produkto biologikuak, algak eta beste gauzak ez dittuelako edozein dendatan saltzen.



Halanda be, Eibarren jendia moldatzen da, belardendetan, merkatu plazan eta Badana dendara juanda".

Algak

Nekazaritza biologikuarekin ohittutago gagoz, baiña algak jatiarena arraruagua begittanduko jako askori. Halanda be, elikaduran adituak diranen arabera, oso nutritibuak dira eta bitamina eta mineral mordua aportatzen deskue. Gure merkatuetan ohikuenak kombu, hijiki, wakame, arame, agar-agar, nori eta dulce dira eta gero eta gehixago erabiltzen dittue sukaldarixak, elikadura makrobiotikako kanpoko esparruetan be. Gaixaren gaiñian interesa dakanak edo, beste barik, menu makrobiotikua probau nahi dabenak, datorren asteburuan, hillaren 17xan Tallarran horretarako aukeria eukiko dau. On egin!

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea
- Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

943 12 08 72 Bista Eder, 7

+QWAPOS
txakur ileapaindegia

- Merkatal mozketak eta erakusketetarako
- Stripping-a / - Bainu mota guztiak
- Produktu eta osagarrien salmenta
- Etxeetara joaten gara

Gariteno 1957an sortua
GOZOTEGIA

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetarako TARTAK

Julian Etxeberria, 6
Tel. 943 20 24 51

teen-ajeak



Iratxe Umanek maiztra eta ekainean eskainiko duen ikastaroan kuadrilek euren kamisetak margotzeko aukera izango dute, Enneta Gaztelekuak Sanjuamari begira egindako proposamen bereziari jarraituz.

“Kuadrillek kamiseta propioak egiteko aukera izango dute Gaztelekuan”

- Ikastaroan izena ematen dutenek zer aurkituko dute?

Kuadrilako kamiseta propioak egiteko aukera. Aurrez ideia bat ekarri beharko dute, irudi, logotipo edo horrelako zeozer. Hobe ideia erraza baldin bada, kamisetara eramateko samurragoa izango da-eta.

- Zein izango da prozesua?

Gazteek ekarritako irudia kamisetara eramango dugu, arkatzarekin edo kalkoarekin. Kalkoa erabiliko dugulakoan nago, kamiseta guztiak irudi berbera izan dezaten. Gero ohialak margotzeko pintura

bereziak erabiliko ditugu, ro-tulkiarekin edo pintzelarekin.

- Prozesu erraza da?

Bai, ez da zaila. Hasierako irudiak errazak izatea izango da onena. Gero, denboraz ondo ibiliz gero, sartuko ditugu detaile gehiago.

- Zergatik animatu beharko lirateke gazteak?

Aukera desberdina da; Errotako gazteetako askok lehenengo Sanjuanak biziko dituzte kuadrila moduan. Euren kamiseta propioarekin egitea aukera ezinhoba da. Izena Errotan eman daiteke, domekara arte.

Ipurterre lehiaket

Hamalaugarren urtez antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkartek Ipurterre ipuin lehiaketa. LH eta DBHko ikasle guztiak dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Aste honetan bertan jakin dugu zeintzuk izan diren irabazleak. Datorren astean, eguaztenean, jasoko dute saria gazteek, Hezkuntza Esparruko Antzokian.

Urtarrilean banatu zieten ...eta kitto! Euskara Elkartek Ipurterre ipuin lehiaketako oinarriak Eibarko ikastetxe guztietan. Gazteen artean euskaraz idazteko ohitura bultzatzeko asmoarekin, urtero antolatzen da lehiaketa eta gelaz-gela banatzen dira oinarriak.

Izan ere, Eibarko 6 eta 16 urte arteko ume guztiak dute euren ipuina idazteko aukera. Martxoan jaso ziren ipuin guztiak, 982 aurten, eta epai-mahaikideen artean banatu.

24 epaimahaikide behar izan dira ipuin guztiak irakurri eta onenak zeintzuk izan diren erabakitzeko, “B ereduko

2008ko IRABAZLEAK

	D EREDUA	B EREDUA
LH 1-2	Nagore Cabanzon (S. Andres)	Paula Gomez (Aldatze)
LH 3-4	Susana Zubiaurre (La Salle)	Elena Idigoras (Aldatze)
LH 5-6	Izaro Fernandez (J.A. Mogel)	Ane Alvarez (Aldatze)
DBH 1-2	Marina Azkonaga (Itzio)	Sandra Sanchez (Itzio)
DBH 3-4	Izar Baglietto (Itzio)	Idoia Badiola (Aldatze)
Akzesit:	Elena Agirrebeña (La Salle Azitain)	

HOROSKOPOA

ARIES

Datorren egunotan ezarriko min izango duzu, beraz, gehiago zaindu beharko zinateke. Ez badu manga motzean ibiltzeko eguraldirik egiten, jantzi jertsea, bestela hoztu egingo zara! Helduko da beroa, izan patzientzia!

TAURUS

Zure bizkarrean berba egitea gustoko ez baduzu, zergaitik egiten duzu zuk berdina? Datorren astean aurpegira esan beharko diozu ezagun bati pentsatzen duzuna. Arazoei aurre egin behar zaie, ez ihesi joan.

GEMINI

Atzera bueltarik ez dago, egindakoa eginda dago eta ez dago erremediorik. Txarto sentituko zara, normala, gauzak pentsatu gabe egitearen ondorioa da hori! Hurrengo baterako badakizu, birritan pentsatu zerbait egin aurretik.

CANCER

Musika gehiago ipini beharko zenuke zure bizitzan. Azkenaldian oso txepel zabilta, gata da zuk behar duzuna! Zuk daukazun salta eta graziarekin... Horrelako boladak pasatu egin behar dira, betiko kontua da.

LEO

Maitasun kontuetan inoiz baino hobeto ibiliko zara datorren astean. Zure xarmak inguruan dagoen edozer liluratuko du eta denak ahozabalik utziko dituzu. Hala ere, xarma hori astea bukatzen denean desagertuko da.

VIRGO

Aspaldian erosteko zain zeuden gauza hori helduko da, baina zailantzak izango dituzu erosi behar duzun edo ez. Erabakitzen duzuna erabakita, sentsazio txar bat gertatuko zaizu barrenean, erabaki okerrean hartuko bazenu bezala.

LIBRA

Ez zaitzez ez laku, ez ibai, ez itsasotik hurbil ibili datorren astean. Ura edateko eta duxatzeko bakoarrik, ezertarako gehiago. Kasurik ez eginez gero, ez etorri kexaka eta barkamen eske. Zure eskutetan dago erabakia.

SCORPIUS

Beti pentsatzen duzu gauza txarrak zuri gertatzen zaizkizula, zu zarela munduaren zentrua eta dena zure inguruan gertatzen dela. Ba ez, ez da horrela. Begiak zabaldu eta besteak dituzten arazoez gehiago arduratu zaitzez.

SAGITTARIUS

Zeinen ederra zauden 'look' berri horrekin! Egia esan, ez da zaila zu ederra egotea. Pertxa baino gehiago da zurea. Zein da zure sekretua? Beno, onena da inori ez esatea, horrelako gauzak bakoitzak beretzat gorde behar ditu.

CAPRICORNIUS

Aste guztiak ezberdinak dira, egun guztiak dira ezberdinak, batzuk onak, beste batzuk txarrak. Gauzak datozen bezala onartu behar dituzu, momentuz onetaz gozatu, eta txarrak ahalik eta ondoen pasatu. Orain garai onak datoz.

AQUARIUS

Ligatzeko daukazun estrategiak barregurea baino, pena ematen du. Zer lortu nahi duzu horrela? Noizbait ligatzea lortu duzu? Zailantzan nago. Lagunen bati laguntza eskatu beharko zenioke, asko dakien norbaiti esaiozu.

PISCIS

Noiztik ez zoaz amama eta aitxixaren etxera? Ez zara euren aurpegiaz oroitzen ere, ez daukazu lotsarik? Beti zure kontuetan pentsatzen, eurek ere zure arreta behar dute! Maite zaituzten guztia-ekin, zein esker txarrekoa zaren!

ako sarrien 2008ko jabeak

partehartzea asko jaitsi da eta DBHko maila oso altua izan da. Ohikoa ez bada ere, DBHko 3-4 mailako D ereduak akzesita banatzea erabaki dute epaimahaikideek. Nahiago izaten dugu irabazle bakarra izatea, baina oraingoan akzesita ezinbestekoa zen”, azaldu du Ainara Labado ...eta kitto!ko arduradunak.

Urteroko moduan argi gelditu da partehartzaileen gaiak adinaren arabera izaten direla, “urtero aztertzen dute epaimahaikideek zer nolako gaiak erabili dituzten partehartzaileek. Idazteko trebetasunak, txukuntasunak eta istorioaren egiturak erabakitzen du zein den irabazlea, baina gaia trebetasun horrek baino, adinak dakar. LHko ikasleen artean istorio fantastikoak dira nagusi; DBHko ikasleek erreallitatean ikusten dituztenak erakusten saiatzen dira: mai-tasuna, euren arteko harremana, gurasoak...”, azpimarratu dute ...eta kitto!n.



KOLDO MITXELENA

lazio lehiaketako irabazleak Ipurterre sari banaketa ekitaldiko jaialdian jasotako sari guztiekin.

Sari banaketa malatzaren 14an

Datorren eguaztenean, maiatzaren 14an, egun handia biziko dute aurtengo Ipurterreko irabazleek. Goizeko hamarretan hasiko da ekitaldia, eta sariak banatzeaz gain, Eriz magoaren emanaldia ikusteko aukera izango dute Hezkuntza Esparruko Antzokian. Guztira 10 sari eta akzesita banatuko ditu Euskara Elkartek. Irabazleek Elkarlanean, Alberdania,

Erein eta Ibaizabal argitaletxeek eskainitako ikasmateriaia eta Eibarko Julen, Aierbe, Yrrolagoitia eta Mega liburudendetan gastatzeko erosketa txekak jasoko dituzte. Gainera, ipuin irabazle guztiak argitaratuko dira; horretarako maiatzaren 22an kaleratuko den Txikito! hilabetekaria erabiliko da, monografikoa, Ipurterreko irabazleek idatzitakoak ikastetxe guztietako haur eta gazteek irakur ditzaten.



Itzioko frantses ikasleak Parisen

Urteroko moduan, Itzioko frantses ikasleak Frantzia izan dira apirilaren 27, 28, 29 eta 30ean. Guztira 41 ikasle eta 3 irakasle abiatu ziren, ondo pasatzeko gogoarekin: frantsesa praktikatu, Frantziako historia eta kultura ezagutu, erosketak egin... eta Paris ezagutzeko aukera izan dute. Besteak beste Trocadero, Eiffel dorrea, Napoleonen hilobia, Notre Dame, La Defense eta Montmartre (Sacré Coeur) ikusi dituzte. Bateau-Mouchon ere ibilalditxo egin zuten gaez. Nekatuta, baina oso pozik itzuli dira, jada datorren urteko bidaiarekin amesten!

Ordenagailua Uni-ko ikaslearentzat

Apirilaren 24an Iñaki Konde, Ikaslan Lanbide Heziketako Institutu Publikoen Elkarteko zuzendaria Uni Eibar-Ermu BHI ikastetxean egon zen, Gipuzkoako ikastetxe guztien artean zozketatu duten ordenagailu eramangarria zozketako irabazleari ematen: argazkian ikusten denez, Ane de la Sen Erdi Mailako Merkataritza zikloko ikasleak pozarren hartu zuen saria.



Gizatasun falta?

Zein garrantzitsua den argazkia! Eta kitto-ko zutabearekin konturatu naiz horretaz. Nahiz eta egunero egunkarian orrialde bat idatzi, goitik behera, arraroa da norbaitek niri zuzentzea eguneko gaiak zer bait komentatzera. Problemarik ez. Baina aldizkarian hiru edo lau hilabetero zutabea idatzita, badira batzuk zer bait bota didatenak. Ezagunak eta ezezagunak, aldeko eta kontrako iritzia. Eta guzti hori goiko partean azaltzen den argazki txiki horrexegatik, nahiz eta argazkia ateraz geroztik itxura aldatu. Zerbait komentatzera etorritako batek, saskibaloit taldeko kide ohiak, zera esan zidan: “Hurrengoan gizatasun faltaz hitz egin behar duzu”. “Zer?”, galdetu nion, horren proposamen zabala jasota. “Ba hori, adibidez lehengo egunean arazo bat eduki nuen kotxearekin eta telefono bat eskatu behar izan nion andra bati, eta hark ezetz”. Nire buruan ia metro biko lagun hori urduri eta ero baten modura telefono bat eskatzen imajinatu nuen eta andra gixajoa arrapaladan ihes egiten. “Pentsatuko dut”, erantzun nion. Baliteke humanitate falta egotea, umore txarreko momentuak, pertsona ezkorrak, harreman hotzak... Baina hori horrela bada, kontrako partea ere ikusi behar dugu. Badaude pertsona ezku zabalak ere, laguntza emateko prest daudenak edota irribarre batekin agurtzen zaituen ezezagunak. Aukeran, ni alde honekin geratuko naiz. Beraz, nire lagunari berdina egiteko eskatuko diot: irribarre atera eta ez zaitez nirekin haserretu zutabe hau irakurtzean.

Felix Morquecho
(KAZETARIA)

San Isidro basarritarrak batuko ditte eguenian Arraten

Basarritarrak euren patroiaren omenezko jaixa ospatuko dabe eguenian, hillaren 15ian. Ohiturari jarraituta, 11.00etan hasiko dittue ospakizunak, meziakin. Mezan bertan Narbaiza, Lizarreta eta Ziarda bertsolarixak eta Sorkunde eta Ion trikitilarixak jardungo dabe. Meza amaitzian, Ama Birjiñia prozesiñuan etarako dabe, Usartza Txistulari Bandakuak lagunduta. Kezka dantza taldeko dantzariak, barriz, aureskua dantzatzuko dabe. Jarraixan bertoko hainbat produktu dastatzeko aukera paregabia izango da. Bestiak beste Getariko txakoliña, baillarako gaztaia, ogixa eta aire librian hazittako basaxerri ezaugarriak daken txarrikixak probatzeko moduan izango dira.

Eguerdian partian, 12.30xetan herri kirolen txandia ailegauko da: San Isidroetako VI. Aizkolari Txapelketak mailla haundiko kirolarixak nor baiño nor ipiñiko ditte. Senosiain, Zelai II.a, Lopez Azpilikueta, Flores, Bihurri eta Mindegia aizkolari-xen saiuarekin tartekatuta, Ioseba Ostolaza, Landarbide eta M^a Jose Sardon harrijasotzailiena egingo da.

Bazkarixa eta idi-demak

Ondoren, 14.00etan basarritarrak Kantabria jatetxian alkarrekin bazkalduko dabe (bazkarirako txartelak kantabria jatetxian bertan erosi leikez). Urteroko moduan, herri bakotxeko aitzitxa-amama nagusixeneri oparixa emongo detse eta, horrez gain, mahaikidien artian sari baten zozketia egingo da-



AMAIJA JAIO

be. Bazkalostia girotzen bertsolarixak eta trikitilarixak jardungo dabe.

Eta egunari amaiera biribilla emoteko, 17.30xetan idi-demak hasiko dira: Elgoibarko Soartek, Eibarko Mendigoitxik eta Itziarko Ixamak hartuko dabe parte. Eta illuntzian txanpan-botilla eta ardau-botilla kaja bana zozketatuko dittue.

Ekitaldixak Deba Beheko Landa Garapen Elkartek antolatuko ditte, Debemenen, Kantabria jatetxiaren eta Debabarrenako Udalen laguntasunarekin. Betiko moduan, Arratera autobuses igo nahi dabenandako autobus zerbitzua antolatu dabe. Autobusa 10.15etan urten-go da Ego Gain kaleko autobus geltokitik.

Galiziako Etxekuak, jaixetarako motorrak berotzen

Programautako ekitaldi nagusixenak hurrengo asteburuan egittekuak badira be, domeka honetan jokatu-ko dan umien foball txapelketiakin abiatuko dira aurten 25 urte beteko daben Dia Das Letras Galegas jaixak. Urteroko moduan, As Burgas Galiziako Etxekuak asteburu betia preparau dabe eta hillaren 16, 17 eta 18xan jende ugari batuko da Urkizun, batzuk Galiziako produkto tipikuak dastatzeko eta beste batzuk, beste barik, antolatutako ekitaldixetan parte hartu eta gozatzeko. Galizia eta Euskal Herriko dantzak, musikak eta kirolak tar- te berezixa eukiko dabe programaziñuan eta, zelan ez, Galiziatik etorritako orkes-



AMAIJA JAIO

tra ikusgarriren erritmora dantzatzeko aukerarik ez da faltako.

Abontzakuak jaixari heltzeko gertu

Datorren asteburuan jairako aukerarik ez jaku faltauko herrixan. Beheko al- dian Galiziako jaixak puri-purian egongo diran egun beretan, Abontzako Ittu- rrixa alkartekuak asteburu betia preparau da- be Egitentzarreneneko parke ingururako. Ba- rixaku arratsaldeko txupinazuarekin batera abiatuko dira ekitaldixak: antzerkixa, lehia- ketak, paella erraldoia, karaokia, berbenia... denetarik izango da datorren asteburuan.





● tartak

● enkarguak

etxera

Bidebarrieta 28

☎ 943 20 79 73

EMAKUME ETA GIZON

M O D A



Konfekzioak

☎ 943 20 22 33 **Zuloagatarren, 7**

moda**moda**moda**moda**

Udaberriko

moda**moda**moda**moda**
moda


20
08

GEHIGARRI berezia

Udaberrirako behar duzun guztia:

ospakizunetarako jantziak,
egunero erabiltzeko erropa,
moda gaztea
eta dibertigarria, erropa
erosoak eta informalak,
oinetakoak, konplementoak...


HAURDUNALDIRAKO
BARIETATE HANDIA



Bainujantzia edo
bikinia erosita,
POLTSA OPARI
(stock-a amaitu arte)

TXUKUNA

Eulogio Garate, 1



Egunero
erabiltzeko eta
ospakizunetarako
erropak





Zuloagatarren, 1
EMAKUME eta
GIZON MODA


**BETI
EHUN
NATURALAK**

gazteendako
erropa eroso
eta dotoreak


Arragueta 9

Irirtsa






S A C H E R
Bidebarrieta, 18




J. Etxeberria 2



YBOGG
NESKAK

GOITZEN

GUZTIONDAKO OINETAKOAK
Bidebarrieta, 26







Zuretzako
modarik
DIBERTIGARRIENA

T. Etxebarria, 10

LIDE




caribu
F. Calbetón, 8



Urkizu
10

ARD
ROSA DOMÍNGUEZ



T. Etxebarria, 18

gazte moda

Chiloé



KOLDO MITXELENA

"Egunon, ...eta kitto!tik deitzen dizut. Inkesta txiki bat egiten dihardugu, jendeak ...eta kitto! aldizkaria ezagutzen duen eta duen iritzia galdetzeko. 900 etxebizitza aukeratu ditugu, eta zurea izan da aukeratuetakoa bat. Izango al zenuke gure galderei erantzuteko 10 minutuko tartetxo bat?". Horrela hasiko dituzte Aztiker enpresako inkestatzaileek datorren eguenetik aurrera egingo dituzten deiak.


Maiatzaren 15ean hasiko dira ...eta kitto!-ri buruzko deiak

Txorierriko Aikor hilabetekariari buruz; Topaguneko Hedabide Batzordeko arduradun den Joxe Rojasek azaldu digunez, "lehenengo urtea izan da; proba egiteko konbentzitu genituen aldizkari bietako arduradunak. Baina inkesta honekin are gehiago lortzea espero dugu. Urtero Topaguneko bazkide den aldizkari pare batek horrelako inkesta egitea nahiko genuke. Datu benetan esanguratsuak lortzea espero dugu; gure aldizkariaren etorkizunean eman beharreko pausuak jakiteko, eta gure indarguneak eta ahultasunak zeintzuk diren jakiteko aukera".

Galdetegiaren hiru borradore izan dituzte esku artean. Eta datorren eguenetik aurrera Eibarko 900 lagunek behin betikoari erantzuteko aukera izango dute. Besteak beste, aldizkaria jasotzen duten, irakurtzen duten, lantzen diren gaiak eta estiloak baloratzeko, diseinua, euskara... guztia baloratzeko aukera izango dute, "inkesta ahalik eta osatuena nahi genuen. ...eta kitto! lantaldeak galdera gehiago nahi zuen, baina Aztikerrek galdetegia ezin dela luzeegia izan azpimarratzen zuten. Hala ere, informazio handia eskainiko digu etorkizunera begira", azpimarratzen dute ...eta kitto!n.

Paperezko inkesta

Aztikerrek egin zuen orain hilabete banatu zen idatzizko inkestarena ere, "idatziz jendeak denetarik idatzi dezake. Balorazio oso positiboa eta oso negatiboa egiten duten pertsonak hartzen dute parte horrela-



koetan. Muturreko posturak zer nolakoak diren jakiteko aukera eskaintzen digute. Gainera, ...eta kitto!ko arduradunek galdera bat moldatzea eskatu zuten, jendeari zer gehituko lukeen galdetzeko. Horrelako inkestak betetzeak denbora behar du eta gaur eguneko gizartean asko kostatzen da jendea animatzea. Baina gero, deien emaitzendako osagarri ona izango da", azaldu dute Aztikerren.

Espero baino erantzun handiagoa izan du paperezko inkestak. Lerro hauek idazterako orduan, 145. Era guztietako balorazioak eta proposamenak; orain arteko balorazioa ezin positiboagoa da elkartarendako. Baina egunean hasten da bigarren zatia. Guztia-rekin irakurketa egingo du Aztikerrek eta emaitza uztailaren amaierarako jasoko du ...eta kitto!ko zuzendaritzak. Horren berri ere izango duzue, jakina. Eta bide batez, ...eta kitto! Euskara Elkartek eskerrak eman nahi dizkio idatzizko inkesta erantzun duen guztiari, paperean zein webgunearen bitartez egin duenari. Eta eskerrak aldeztu aurretik datorren astean Aztikerren deieria erantzungo dioten 900 pertsonak.

A spaldiko ideia zen ...eta kitto!n inkestarena. Iaz hainbat galdera prestatzen hasi ziren eta nahi bari-rik, abenduan, aukera ezinhobea sortu zen, "Topagunea, Euskara Elkarteen Federazioak jakinarazi zigun Eusko Jaurlaritzak hedabideei buruzko inkestak egiteko dirulaguntza sortu berri zuela. Federazioak interes handia zuen eta guk ere egiteko asmoa genuela ikusita, animatu egin ginen. Gainera, beti izan dugun kezka nagusienetako bati irtenbidea ematen zion: argi genuen enpresa profesionala nahi genuela behin betiko inkesta prestatu eta emaitzen irakurketa egiteko, baina horrek dirutza balio du ...eta kitto! moduko elkarte txikiarendako. Eusko Jaurlaritzak gastu horren zati handia ordaintzeko aukera eskaintzen zigun", azaldu dute Elkartean.

Hamabost urtetik gorako eibartarrei egingo zaizkie galderak, guztira 900 dei izango dira. Eibarko biztanlegoa zer nolako den aztertuta, adin tarteka banatu dituzte. Hamabost egun inguru beharko dira inkesta guztiak egiteko.

Abenduan hasi zituen ...eta kitto!k bile-
rak Aztiker eta Topagunearekin. Gainera, in-
kesta bera egiten dihardue orain astebate

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com



MEKANIKETARAKO
TRESNAK

SPK- Zeramika, silizioa

ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak

ROY - Diamante eta boraxezko hariak

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko
osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik
egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai 4-6 behe, ezkerre

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 20 10 95 Faxa: 943 20 25 64

A tope de cuerda!!!

Nola liteke, bizia eman diguzun hori, maitasuna eskaini diguzun lagun hori... bat-batean hemen gugaz ez izatea?

Ezinezkoa baita, Gaizka, zeure moduko pertsonak isladatzen daben energiari gabe bizitzea.

Eskerrak hor zagozan, geure ondoan, orain arte bezala, geure bihotzaren barren barrenean.

- Ke pasa makina, zer moduz?, galdetuko diguzu.

- Zer moduz zaaz?, galdetuko diguzu ere, beti arduratsu; justu justu lagun baten berotasuna eta laguntza beharko dogun unean, orain arte egin dogun bezala.

Hori da erakutsi diguzun gauzarik eder eta handiena, maitasuna eskaintzea eta zoriontsuak izateko bideak erakustea.

Ez izan zalantzarik, horrela sentitu garela beti zeure ondoan egon garenean... zoriontsuak eta maitatuak.

Zenbat aldiz ukitu eta laztandu doguz Atxarteko hormetan dauzen harkaitzak, goraka eramango gaituen bidea bilatu nahian?

Zenbat aldiz eseri gara hirugarren espoloiaren gailurrean eguzkiari eguneko agurra ematera?

Zenbat aldiz bilatu dogu udako egun sargori bateko arratsaldean Eguzkiarreko itzal goxoa?

Atxarteko horma hauetan sortutako familia ez da nolanahikoa. Bertan bilatu dogu geure biziak behar duen pizgarria eta indarra... eta aurkitu ere.

Horregatik bueltatzen gara behin ta barriro, indar eta txispa horien bila. Eta horrela izaten jarraituko dau, zeuk nahiko zenduan bezala.

Eskerrik asko, Gaizka, erakutsi eta eskaini diguzun guztiagatik, eta lasai egon, ezbaiz deusugu orain agur esango, ez nik behintzat; ez zara inora joan-eta. Hemen zaaz gugaz, orain, bihar eta beti.

...eta hurrengoan Atxarten, Riglosen, Picun edo Pedrizan gaizenean, badakizue zer egin behar dogun...

A tope de cuerda!!! Berak erakutsi zigun bezala.

Lagunak
(Urkiola, 08-IV-27)

GAIZKA SOLA-ren

BIZITZA BERTIKALA

mundua
beste
prisma
batetik



Apirilaren 24an, astekari honen aurreko zenbakia inprentara bidaltzen genuen egun berean, berak hainbestetan bisitatutako Abadiñoko Atxarteko hormetan galdu zuen bizitza Gaizka Sola eibartarrak. 29 urteko mendizalea azken aldiaren zarautztartu bazitzaigun ere -han, gainera, Arista dendan egiten zuen lan-, lagun eta ezagun asko zituen bere jaioterrian eta, gertatutakoarekin atsekabetuta, izan dira astekarira idatzi dutenak. Haren familiakoek ere, guregana etorri eta eskelak baino beste zeozer nahiago zutelakoan, orrialde hauetako omenaldi xumea eskaintzea nahi izan diogu. Bide

batez, Gaizkak gurekiko beti izan duen jarrera eta eskaintako laguntasuna eskertzea besterik ez da-gokigu. Beste behin, goian bego Gaizka!

Alfatik Gaizkari

Laztan bat Gaizka, zurekin emondako denporiagaittik, laztan bat; laztan bat, ikastolako pasartiengaittik, Alfa atzeko berbeta, okerkerixa, zigarro ta muxuengaittik, laztan bat. Laztan bat zure irribarriari; holan, irribarrez gogoratuko zaittugu, irribarre zintzo, zabal ta bihurrixaz. Ezagutu be, holan ezagutu zinttugun-ta; langillia, irribartxua ta bihurrixaz, zirikatzaillia. Laztan haundi bat Gaizka, Alfatik, oroitzapen ta laguntasun malkuetan, irribarrezko laztan bat.

Ikastolako lagunak

Gaizkari

- Egunon gaztie, egualdi earra iteik ta hemen juntau gaittuk, hirekin pixkat eoteko danak batea. Beti izan haiz inprebisibilia ta oaingo hontan ere sorpresaz harrapau gaittuk. Near mordo bat in diu ta beste hainbeste ingoiu. Baina seguru gitxanek beti gurekin eongo haizela, orduan xamurro izagoek danontzako.

- Eskerrak bene-benetan; guk danok, Maite ta Mikel, Nerea ta Gaizka, ta batezbe gure Maidertxo hain zoriontsu eitxeagaittik.

- Hik erakutsi higun bizitza opor konstante bat bezela bizitzen, ta halaxe saiauko gaittuk itten.

- Lasai egon, hire familixa ta batezbe Maider zaintzen saiatuko bait gaittuk; hik esaten huan bezela: Apretaremos siempre hasta el fallo muscular y más. Ta faborez, alien berdía hanka azpizan uzten dogunian eman bultzadatxo bat, biharko dogu ta.

- Gaizkilla, eskerrik asko denagatik. Eongoaittuk. Ta Indian Creeken (munduko bigarren leku onenian) esate zien bezela, Splitter bro!! See you soon!!

Aritz (The Big Guy)

Eskerrik beroena

*Haitzetan gora, sagasti eta txaren gainetik,
basoak eta mendiak zeharkatuz,
zeruertzaren bestaldetik
behatzen gaituzu Gaizka.*

Ze goxoa izan den elkarbanatu dugun maitasuna!

*Zure bizitzaren oparia eskertzerakoan,
egun latz hauetan bere laguntza luzatzen digutenei,
gure eskerrik beroena eman nahi diegu,
bene-benetan.*

Gaizka Sola Lasaren familia

Badira zortzi bat urte berarekin egotea egokitu zitzaigula, Klub Deportiboko Kezka aldizkarirako Yosemiteko horma handietan izandako esperientzia lehenengo pertsonan kontatzeari baiezkoa eman zigunean. Kilometro bateko altuerako granitozko "Kapitaina" horma horretan bizi izandakoak aukera eman zizkion Gaizkari bere sentsazioak besteoi gerturatu ahal izateko. Berak idatzitako pasarteak dituzue jarraian datozenak, askorentzat argigarri eta besteontzat aberasgarri izango zaizkizuenak. Berak esaten zue-nez, "mendia itsaso zabal bihurtutako altuera hartatik".



"Eskalada mota honek ezagutza eta teknika handia eskatzen du. Edozein ez da gai eta gai den askok ez du gustoko. Gustoko dugunok, bestalde, tabernazuloan baino denbora gehiago igarotzen dugu hormatik zintzilik. Nire kasuan, horma gero eta handiagoak igotzeak erakartzen nau. Paretean egun batzuetarako bizitzeak moldatze berezi bat eskatzen du. Egunduan osoan sokaren muturrean eskalatzen, laguna aseguratzen, petatea igotzen (ai petatea! zergatik ez ote du gogoko bere kabuz igotzea! beti dabil gure bizkarra matxuratu nahian, horrenbestekoak izaten baitira 50-75 kilo horiek igotzeko egin beharreko esfortzuak). Gutxi jan, gutxiago edan, bero asko jasan hotza ondoren, mailuaz hatz bat zanpatu, erori eta sekulako zartakoa hartu... honela begiratuta ez dauka oso itxura erakargaririk; baina masokistak ez gara (ez osoki behintzat) eta bere gauza zirraragarriak baditu. Zoruaekin kontaktua galtzean, bizitza horizontalari agur esan eta bizia bertikal bilakatzen da. Kontzentrazioa erabatekoa behar du izan; hutsegite batek ezinbesteko gauza bat erortarazi dezake edo ezbehar bat sortu. Horma-handiaren mamuak uxatzea lortzen badugu, paretarekin konexio berezi bat sortu eta gure lagun bilakatzeko da. Munduan gertatzen dena beste prisma batetik ikusten da, lurrean zentzuzkoa den zerbait hemen ezberdin izan daiteke. Mendiak (mendia beti mendi) nor garen erakusten digu, beldurra kontrolatu beharra, beharrezkoa denarekin moldatzen ikasi; gure mugak non dauden azaltzen digu".



Gaizka Sola

Gaizka Solaren senide maiteei

*Harro dabil azken aldian heriotza
lau haizetara oihuak botatzen:
Ni naiz munduko botere zaharrena
Nik bidaltzen dut gau iluna zuengana
Nik daukat zuen negarren giltza.
Ez daki heriotzak guk sinatu dugula
Jangoikoarekin aspaldiko hitzarmena
bakarrik **Berak** eukiko duela azken hitza.*

Asier Ezenarro

Gaizka Solak
apirilaren 24an
lagun batekin
egindako eskalada
amaitu eta gero
izan zuen istripua.

TXARRU
 BIDEBARRIETA, 3 Tel. 943 12 07 35

PRODUKTUAK:
 SEBASTIAN, L'OREAL
 WELLA, CLAIROL,
 Schwarzkopf, REVLON
 eta Aparatologia

den-dena
 zure ilearentzat

BAMETSA
 REBEAR

Toribio Etxebarria, 4

Julian Ruiz, Arrateren entrenatzaile berria

Eguazten arratsaldean aurkeztu zuten kiroldegian datozen bi denboraldirako Arrate eskubaloi taldeak fitxatu duen entrenatzaile berria. Julian Ruiz Asobalen eskarmentu handia duen entrenatzaileak Viktor Debreren tokia hartuko du eta, horrela, urtebete entrenatu barik egon ondoren, lehiaketara bueltatzen da. Orain arte, Santanderreko Teko, Alemaniako Bundesligako Miederbushbach eta Irungo Bidasoa entrenatu ditu, Espainiako emakumezkoen selekzio absolutuarekin batera.

Omenaldiak Arrate-Torrevellán

Partidua galdu arren (22-25),

omenaldi askoko eguna izan zen domekakoa Ipurua kiroldegian Eibarko taldearentzat. Horrela, Hungariara bere herri-
ra bueltatuko den Debre entrenatzaileak Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren urrezko in-

tsignia jaso zuen eta Euskal Federazioak, bestalde, denboraldi honetako entrenatzaile onenaren saria eman zion. Azken federazio horrek, gainera, Iñigo Salaberria ere saritu zuen denboraldiko Euskadiko jokala-

ri onena moduan; eta Arratek Jaitok (zortzi denboraldi) eta Carouk (zazpi) Arraten izandako ibilbidea ere saritu zuen. Partiduaren ondoren, taldeko zuzendaritzak eskainitako bazkarian Arrateren urrezko intsignia eman zioten Debreri.



Salaberria, Jaito, Carou eta Debre partiduan jasotako sariekin.

Jubenilak Ipuruako fasean

Jubenil mailako mutilen taldeak hirugarren postuan amaitu zuen Espainiako txapelketarako Ipuruan jokaturako zonaldeko fasean. Arratekoek 31-28 irabazi zieten Lagunak-eko nafarrei, baina 27-35 galdu zuten azken irabazle izango ziren San Martin Adrianenc-eko kataluniarrekin eta 28-36 Cangaseko asturiarrekin.

Martxan da hiriko bolo-palma torneoa

Eibarko bolo-palma torneoko XXII. edizioa hasi zen apirilaren 30ean, Asturias, Kantabria, Madril eta Euskal Herriko 80 bat ordezkariarekin. Hilabe-



te honetan jokatu beharreko beste sei jardunaldietan erabakiko da uztailaren 6an finala jokatu duten 16 jokalariren izenak. Ipuruako bolatokian jokatzeko txapelketako 4. jardunaldiaren ordua izango da gaurkoa (astelehenean eta eguaztenean jokatu ziren beste biak) eta jarraipena izango du datorren asteko astelehen, eguazten eta barixakuan. Torneoaren gure herriko Kantabria Etxeak antolatzen du, Udalaren eta Kirol Patronatoaren kolaborazioarekin.




21 domina Ipuruako gimnastentzat Gipuzkoako txapelketan

Hernaniko kiroldegian maiatzaren 1ean jokaturako gimnasia erritmikako banakako eta taldekako txapelketetan, Eibarko taldeak beste inork baino domina gehiago eskuratu zituen. Seniorretan, Garazi Pablogorranek irabazi zuen mazekin, Maider Jiménezek sokarekin eta eurak biak, Helena Jauregiarekin batera, taldekako urrezko domina eskuratu zuten. Juniorretan, Olatz Ibaibarriaga nagusi izan zen aroare-

kin eta, Olatz Laskurain eta Onintze Pablogorranekin batera, taldekako urrezko dominaren jabe egin ziren. Infantiletan, azkenik, Onintze Pablogorranek sokarekin eta mazekin egindako probak bereganatu zituen. Emaiza horiekin, Ipuruako ordezkari guztiek lortu zuten hilaren 16an Leioan jokatu den Euskadiko txapelketan parte hartzeko txartela.

Horren aurretik, baina, asteburu honetan Erreginaren Kopa izango da jo-



koan Avilan eta hor izango da Garazi Pablogorrán Euskadiko selekzioko lehenengo ordezkari moduan. Eibartarrak soka, maza eta zintarekin egingo ditu ariketak.

Ibarluzeak sendo jarraitzen du hiru txirloko lidergoan

Sergio Rodríguez eibartarrak irabazi zuen etxean (gure herriko Asola Berriko bolatokian) jokaturako Gipuzkoako hiru txirlo txapelketako azken jardunaldian. Asola Berriko ordezkariak zazpi txirlo bota zituen eta seirekin geratu zen San Migueleko Imanol Osoro. Bostekin sailkapeneko hurrengo postuak bete zituzten Asola Berriko Josu eta Bittor Astigaragak eta Jorge Arregik, San Andreseko Iñaki Ariznabarretarekin batera.

Sailkapen nagusian bost txirloko aldeaz jarraitzen du San Migueleko Angel Ibarluzeak, sendo lidergoan, Asola Berriko hiru ordezkariaren aurretik: Ganix Rodríguez, Anartz Esteban eta Bittor Astigarra. Bihar, arratsaldeko 17.00etan hasita, jokatu da hurrengo jartialdia Azkoitiko Floreaga bolatokian.



**NEURE BURUA NIK NEUK
GIDATZEKO PREST!**



WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

2008
berrikuntza urtea
euskadi
año de la innovación

200 partehartzaille Eibarko duatloian

Zapatu arratsaldean jokatu zen Eibarko Duatloian XIX. edizioan, 200 bat duatletek hartu zuten parte eta probak, beste behin, ondo erantzun zion ospea eman dion zorroztasun eta gogortasunari. Euskal Herriko zaharrena da eta zirkuitoko zortzigarren proba puntuagarria, distantzia motzean jokatzeko dena. Lasarterketan 8 kilometro egin eta gero, beste 32 bete zituzten bizikleta gainean eta, amaitzeko 4 kilometroko antxintxiketaldia.

Radka Vodickova (Ekol Triatlón Team) txekiarrak irabazi zuen emakumezkoetan (1:38:01) eta Mikel Monasterio (Kebi Sport) bermeotarrak gizonezkoetan (1:25:57). Azken honek irabazitako proban, lan paregabea egin eta gero, Gorka Mujika (Ondarru Koaxi) eibartarrak podiumera igotzea lortu du bere 3. postuarekin: minutua eta zortzi segundo atera dio irabazleak eta Karabietan, gainera, aurrera jotzeko ahalegina egin zuen, azkenean amore eman behar izan bazuen ere. Eibar Triatloi Taldeak antolatutako probako emakumezkoen mailako irabazlea, bestalde, Europako gaur egungo azpitzapelduna da.



Duatloian parte hartu zuten atletak Toribio Etxebarria kalea zeharkatzen.

Eibar - Las Palmas partidurako giroa berotuko du Eskozia La Bravak

Azken hiru partiduak balduta, Eibarrek lehenbailehen irabazi behar du lasaitasuna emango dion partidua. Bihar Las Palmas izango du bisitari eta aukera

hori baliatu nahi dute zaletuek ere giro berezia sortu eta taldeari laguntzeko. Eskozia La Brava peñak honako egitaraua antolatu du partidua aurretik: 12.00etatik 14.30ak arte, barra

ipiniko da Jubilatutako Etxearen ondoan (edaria eta pintxoekin); 12.30etatik 13.30ak arte, "bombonerazo" txikia jokatu da toki berean 12 urtetik beherakoen artean; eta 14.00etan sariak banatu dira. Partidua, bestalde, 18.30-etan hasiko da eta Eibar

KEko zuzendaritzak hainbat ekimen jarri ditu haur karneta duten bazkideentzat: sarrera doan hartzeko aukera eta taldearekin argazkia egitekoa. Horretarako, izena eman daiteke klubeko bulegoetan eta gaur da azken eguna, 17.00etatik 20.00etara. Konfetiak ere banatuko dira partidua hasi aurretik.

Kiroljokoa, apustuak eskaintzeko

Euskal Autonomi Erkidegoan apustuak ustiatzeko lizentzia duen Tele Apostuak enpresak Kiroljokoa markaren kaleratzea




prestatzen dihardu, apustu-etxeak ireki eta ostalaritza lokaletan makinan jarri. Ezarketa horren lehen fasean, Kiroljokoa martxan dute honetako Eibar, Irun eta Gasteizen kokatu diren apustu-etxeen egokitzapen lanak. www.kiroljokoa.com web orrialdea kaleratu du enpresak aurkezten duen kirol apustu eskaintzari buruzko informazioaz eta kirol albisteez hornituta. Gainera, lanpoltsa atal bat dauka martxan jarri duen langile aukeraketa prozesuan parte hartzeko interesa dutenentzat.



Barriola vs Patxi Ruiz domekan Astelenan

Pelota profesionaleko buruz-buruko txapelketako final-laurdenetako kanporaketa berria jokatu da domekan Astelenan. Aurrekoan izandako ezuste-koaren ondoren, Oinatz Bengoetxeak gaur egungo txapeladuna Aimar Olaizola kaleratu baitzuen Eibarren, Abel



Abel Barriola.

Barriola eta Patxi Ruizen arteko neurketa ikusi ahal izango da jaialdiko bigarren partiduan. Hasteko, Capellán-Zubieta eta Galtza V.a-Eulate bikoteak neurtuko dituzte indarrak; eta amaitzeko, Cabrerizo-Urberuaga eta Ongay-Apeztegiak.

Igeriketa jardunaldia Eibarren

Bihar, arratsaldeko 16.30etan hasita, igeriketako azken jardunaldia jokatu da gure herrian, benjaminen eta alebinen parte hartzearekin. Tolosako igerilekuetan jokatuak Kutzako torneoaren finalean, bestalde, Urdat-Urdotroneko 17 ordezkari izan ziren: aipatzekoak dira Nekane Tejedoren garaipena infantiletan, 50 braza modalitateko proban, eta Nora Varelaren (50 braza), Patricia Sáezen (50 libreak) eta Ander Izagirreraren (50 libreak) bigarren postuak alebinetan.

Emaltza onak Bardullarekin

Bardulia taldearekin Espainiako txapelketan lehiatu duten hiru eibartarrak, bestalde, datorren denboraldian 1. mailan jarduteko txartela eskuratu dute. Aitzol Arrillaga eta Markel Alberdiren taldea onena izan zen eta 1. mailara igotzea lortu zuen, Maider Peralesena mailari eustea eskuratzen zuen bitartean. Horrez gain, Alberdik Euskadiko marka egin zuen 4x200 libreetan.

Zezenketarako sarrera-salmenta

Domekan 18.00etatik aurrera Ignazio Zuloagaren omenezko XIV. Zezenketa egingo da, Eibarko Zezenketa Batzordeak antolatuta. P. Hermoso de Mendozak, Luis Francisco Esplák eta Ivan Fandiñok jardungo dute, Guardiola Domínguezzen zezenekin eta bertara joateko sarre-
rak oraindik erosteko moduan daude. Aldez aurretiko salmenta orain aste batzuk hasi bazen ere, gaur, bihar eta etzi Arkupe eta Leo tabernetara mugatuko dute: Leo tabernan domeka eguerdira arte egongo dira salgai eta Arkupe tabernan, berriz, horrelakoetan egin ohi dutenari jarraituta, txarteldegia zabalduko dute gaur

18.00etatik 22.00etara, bihar 11.00etatik 14.30etara eta 18.00etatik 22.00etara eta domekan, berriz, 11.00etatik 15.00etara. Zezen plazako txarteldegia, berriz, domekan irekiko dute, 16.00etatik aurrera. Antolatzaileek sarre-
rak lehenbailehen erosteko gomen-
datu dute, kanpotik jende asko etortzea aurreikusten dute-eta.

Musika Bandaren kontzertua

Domekan bertan, arratsaldeko zezenketarako girotzen joateko, Cielito Musika Bandak pasodoble kontzertua emango du 13.00etatik aurrera. Besteak beste 'Nerva', 'Gallito', 'Agárrate saxo', 'Manolete', 'Agüero', 'La Giralda', 'Do-



BORIA OLABE

mingo Ortega', 'La Entrada', 'Ciudad de Eibar', 'El Gato Montés', 'Churumbelería' eta 'Jota de los toros de Zaragoza' moduko piezak eskainiko dituzte Untzagan.

Trikitraka Trikitron Coliseoan

Maiatzaren 12an eta 13an (astelehena eta martitzena) Coliseo antzokian Trikitraka Trikitron ETB1eko saioko atal biren grabazioa egingo dute 19.00etatik aurrera. Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek Pelipe trena lagun izango dute egun bietan, beste hainbatekin batera: astelehenean denboraldi berriko 25. programa, Trikitraka Trikitroneko 155.a



"Klikowski"ren grabazioa Txaltxa Zelain.

EKKI BELAR

grabatuko dute, 'Oz' izenburukoa eta, besteak beste, Elvi sabelitzunak eta Patxi Laborda dantzariak hartuko dute parte; martitzenean, berriz, 'Kaku-dance' atalaren grabazioan Kakusai eta Alaitz Guridi izango dira. Aurrekoetan bezala, atalen grabazioak ume ugari erakarri du eta jada ez da sarre-
rarik geratzen, egun bietarako salgai ipini zituzten guztiak agortu dira-eta.

Klikowski

Pailazoena ez da gure herriak egunotan hartuko duen grabazio bakarra. Izan ere, astelehenean bertan 'Mi querido Klikowski' saioarentzat hainbat sekuentzia grabatu zituzten Txaltxa Zelai inguruan. Ekoizpenean 35 bat lagunek hartu zuen parte. Telesaila astelehenetan emititzen dute astero, ETB2an.



Laburrak

BERTSO SAIOA

Gaur barixakua GR 16 bertso ibilbidearen barruan bertso saioa egingo da Eibarren: Mallabia eta Gasteizen arteko bertso desafioa Montekasino tabernan izango da, afalostean. 21.00etan hasiko den afarirako txartelak 20 euro balio du (15 euro langabetuentzat) eta Montekasino tabernan bertan eros daiteke.

TALLARRA GAZTETXEA

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte Tallarra gaztetxekoek datorren zapatarako (hilaren 17rako). 14.30etan barazki jantoki makrobiotikoa egingo dute. 17.00etan, berriz, Valentziako Cabanyal auzoari buruzko hitzaldia emango dute (auzoaren zati handi bat bota nahi dute agintariek eta horri buruz egingo dute berba). Eta gauerako kontzertua prestatu dute: 22.00etatik aurrera El trono de Judas (Iruñea, punk-rock), DSM-5 (Valentzia, speed-rock) eta Golpe de Estado (Oñati, punk-rock) taldeek joko dute eta, ondoren, DJ Norman Duvalen musikarekin jaiarekin jarraitzeko aukera izango da.

TXANGOIA

Beheko Tokia jubilatutakoak La Arboledara txangoa antolatu du maiatzaren 29rako: lehenengo Unbeko Andra Mariaren ermita bisitatuko dute, han hamarretakoa egin eta, ondoren, Punta Galeara abiatuko dira. Bazkaria Zierbanako Punta Lucero jatetxean izango da eta bazkalostean La Arboleda eta inguruak ikustera joango dira. Izen-emateak eguaztenean, kina amaitzean egingen hasiko dira. Bazki-
deek 16 euro ordaindu behar dute eta bazkide ez direnek, berriz, 25 euro.

FELIX GOMEZ RIO

2008ko apirilaren 27an

hil zenaren SENDIKOEN IZENEAN



ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi





Maria eta Hartzaundi

Maria ekan izena. Inun izatekoa baldin bazan, haxe zan, mendi arteko herri txiki hareta Maria, neska edarra, bihargiña, fiña; herrixan bertan esaten eben, estutxian gorde-gorde einda eukitzeko modukua.

Baiña dana be eziñ izaten da sarri, eta Mariak erreze-lua ekan, igarri eitxen eban: artian, ordura arte, Lege Zahar batek umiak eukitzia debekatzen etsan. Jakiñian eguan, baiña horrekin batera, erabagixa be galbahetuta ekan: hurrengo ilbete egunian mendiko bidia lotu jakon, harik eta pagadi baltz baten ertzian Hartzaundi topau eban arte. Baekixan Hartzaundik baekixala. Bata bestiaren aurrian tope eñi ebenian, Mariak ule mataza luzia orraztu, eta ondoren, beste berba barik, dantzan ekin etsen, epel, gozo, poliki, akaso habanera moduko ritmuan -akaso gero foxtrot izentauko zan moda eta estiluan- zeru erdi-erdiko talo zurixaren argitxasunian. Es-traiñekoz dantzan; gero lakuan murgiltzia eñi eben zazpi bidar. Hurrengo goizian etxera itxuli zan Maria, baiña iñork ez zetsan ezer galdu.

Handik harrezkerio eguzkixa ehunka eta millaka bidar agiri eta ezkutau zan ostera. Herrira ezkonduko maixu zahar batekin dantzarri talde bat hasi zan juntatzen, Mariaren seme-alabak tartian, eta haren ostetik beste batzuek, gaztiaguak, eta beste batzuek gero... Eta diñue ze gaur ondiokan, urtian behiñ, koko-eske goizian, Hartzaundi baso illunetatik jaitsi eta, berbetan eitxen ez dabala be, dantzan ibiltzen dala herri hareta dantzarixekin, habanera edo foxtrot estiluan...

**Oier Araolaza
Enrike Izagirre**

Udarako planak Astixarekin

Aurreko urteotako martxari jarraituta, Eibarko Udaleko Euskara Batzordeak eta Astixak udaleku irekiak antolatu dituzte Eibarko umeentzat. Oporrak Afariketan izenekoak 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat pentsatuta daude eta txanda bitan garatuko dira (ekainaren 30etik uztailaren 11ra lehenengoa eta uztailaren 7tik 18ra bigarrena). Udaleku irekietan hondartzara (Deba, Ondarru, Getaria, Zarautz, Zumaia) eta mendira (Garai, Arrate, Elorrio, San Pedro) egun osoko txangoak egiten dira eta, horrez gain, San Fermin egunaren ospakizunekin batera kanpo eta barruko jolasak, eskulanak, indio eta bakeroen eguna eta piraten egunak ospatzen dira. Denera 312 umerentzat toki dago eta izen-ematea dato-

rren asteko astelehena eta eguna bitartean egin behar da, Portaleko 2. pisuan, 11.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 18.00etara (31 euro).

Udan Jolasetan programa, berriz, Eskolaurreko 3. mailako umeentzat pentsatuta dago eta ekainaren 30tik uztailaren 11ra bitartean garatuko da, 10.00etatik 12.00etara Urkizu, Sansaburu, Amaña eta Federico Mayoko ludoteketan. Izen-ematea gorago aipatutako egun eta ordutegian egingo da (20 euro).

Sanjuanetarako kamisetak

Bestalde, 11 eta 16 urte bitarteko gazteentzat kamisetak margotzeko tailerra eskainiko dute Errota Gaztelekuan, bari-xaku arratsaldetan eta zapatu goizetan (12 ordu). Helburua



adin tarte horretako gazteei San Juan jaietan janzteko kamisetak egiten laguntzea da. Maiatzaren 16an, 23an eta 30ean 18.00etatik 20.00etara egingo da tailerra eta maiatzaren 24an eta ekainaren 7an eta 14an, berriz, 11.00etatik 13.00etara. Ikastaroa Iratxe Unanue artisauak emango du eta izena emateko azken eguna domeka izango da. Horretarako Errotara jo behar da, 18.00etatik 20.00etara.

Argazkilaritza tailerra Gabriel Brau-rekin

Artxibo digitalari zuri-beltzean tratamendua nola eman azalduko du Gabriel Brau Argazkilariak gaur, bihar eta etzi Portalean garatuko den doako tailerrean. Argazkilaritza Maiatzean, Klub Deportivo boko argazkilaritza taldeak antolatutako programazioaren barruan emango du ikastaroa beste Argazkilaritza Sari Nazionala eskuratu duen argazkilariak. Gaur arratsaldekoa ordubeteko aurkezpena izango da (19.30etan Portaleko areto nagusian); bihar goiz

eta arratsaldez (10.00etatik 14.00etara eta 16.30etatik 19.30etara) emango da ikastaroa eta domekan, berriz, bakarrik goizeko ordutegian. Datorren asteburuan, zapatuan, Alfredo Divasonek 'Fotografía en 3D: Anaglifos' izenburuko ikastaroa emango du 10.00etatik 14.00etara. Honetarako izen-ematea ere doan da (argazkilaritza@gmail.com). Horrez gain, Portalea eta Arrate Kultur Elkarteko erakusketa aretoek eta hainbat tabernek argazki erakusketa ikusgarriak dauzkate martxan egunotan.



Oinarritzko sukaldaritza ikastaroa



AMANA JAIO

Sukaldaritza era erosoan eta ludikoan ezagutzeko aukera emango dute hastear den 'Sukaldaritza: Lehen urratsak' izenburuko ikastaroan eta, jakina, hainbat errezeta ikasi ahal izango dituzte parte hartzen dutenek. Klaseak maiatzaren 26 eta 28an, eta ekainaren 2, 4, 6, 9, 11, 16 eta 18an emango dira 19.00etatik 21.00etara Portaleko sukaldean.

Ikastaroaren helburua oinarritzko errezetak ezagutzea eta egu-

neroko menu desberdinak prestatzen ikastea da. Unai Magunaze-laia Debabarrenako Lanbide Hastapenaren ikastetxeko irakasleak emango ditu klaseak, gaztelera eta euskaraz, eta 16 urtetik gorako lagunek eman dezakete izena. Horretarako Pegorara joan behar da, maiatzaren 12tik 23ra eta hain matrikula orria jaso. Orria behar den moduan bete eta matrikularen ordainketaren frogagiriarekin batera entregatu beharko dira. Matrikulak 37 euro balio du.



ARTIBOIA

Sanchez Vallejoren bosgarren liburua

Juan Sánchez Vallejo psikiatrak bosgarren liburua amaitu berri du: 'Senectud... divino tesoro...'. Maiatzaren 20an, 19.00etan Portalean aurkeztuko duen lanean zahartzaroa eta berekin lotutako arazoak landu ditu egileak eta hitzaurrea Juan Ortegak egin dio. Horrez gain, Yolanda Cuartero psikologoaren eta Asier Ezenarrioren kolaborazioa izan du. Erroteta editorialak argitaratu eman duen liburua aurkezpen egunetik aurrera erosteko aukera izango da.



SILBIA HERNANDEZ

Ingelesa praktikatzeko udalekuak

Link Idiomak-ek Kutzarekin elkarlanean urtero antolatzen dituen udalekuetan izena emateko epea malatzaren 16ra arte egongo da zabalik. Uztailaren 1a eta 30a bitartean garatuko diren udaleku irekietan aisialdia eta ingelesa bateratzen dituzte (dena 84 orduko eskaintza da). 6 eta 12 urte bitarteko umeek eman dezakete izena, telefono zenbaki hauetako batera deituta: 943203959 edo 943821328.



AMALIA JANO

Musika ikasleak lanez lepo maiatzean

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleek hainbat ekitaldi garatuko dute datozen egunetan: bihar bertan, eskusoinu eta trikitixa taldeek 'Kaleetan kantuz' kalejira hartuko dute parte. Hilaren 14, 22 eta 29an, berriz, musika-hizkuntza eta piano ikasleek San Andres elizako organoa ezagutzeko aukera izango dute. Hilaren 18an gitarra ikasleek Nafarroako Egues bailarako lehiaketan parte hartuko dute eta hilaren 25ean Donostiko gitarra lehiaketan

Coliseoak Bizkaiko Antzerki Ikastegiaren (BAI) Flash!!! antzezlanak jasoko du gaur. BAI-ko azken urteko ikasleek antzeztzen dute lana eta Joseba Lazkano eibartarra da horko zuzendarietako bat. Pertsona batean jaio eta taldeka garatzen den lana egongo da ikusgai gaur Coliseoan.



**JOSEBA LAZKANO,
BAI-ko ZUZENDARIA:**

"Mitoak kritikatzeko ditugure antzezlanak"

- Zer aurkituko du zuen antzezlanak ikustera doan?

Lehenik eta behin, lau urtez eskolan ikasi duten etorkizuneko aktore batzuen lana ikusiko dute, gainera, ikasle ohi batek zuzentzen du. Gauza berritzaile bat da, izan ere, antzezteko era berriak topatzen eta ikertzen saiatu dira. 45 minutuko lan bat da, mugimendu eta testua daukana.

- Alpatu duzun moduan, mugimendua lantzen du antzezlanak. Baina zelan zentzutan?

Zuzendariak, eskolatik pasatu zen Jorge Lastrak, akrobazia lanak egin ditu ikasketak amaitu ostean, eta dantza eta mugimendu fisikoa interesatu da. Antzezlan mugitu bat egin nahi izan du. Denak daude denbora guztian eszenatoki gainean, eta ez dute bakarrik berba eta testuekin igortzen, euren pertsonaiekin eta euren harteko harremanekin ere igortzen saiatzen dira. Nahiko irekia da ikuslearentzat eta oso esanahi ezberdinak izan ditzake ikusle bakoitzarentzat.

- Lan honetako antzezleek aktore famatuaren izenak (Clark Gable, Humprey Bogart...) hartu dituzte. Zer dela eta?

Mitoen inguruan kritika bat egiten du lanak, askotan antzerkietan interpretatzen diren pertsonaia mitifikatu egiten direla eta abar. Ohiko formarekin hasten da antzezlanak, baina askoz ere interpretazio biluziagoarekin. Horrela hasi eta zintotasun askorekin amaitu nahi dute, hori da bilatzen dutena.

- Helduentzako antzerkia eskaintzen duzue Eskola Antzerkiaren jardunaldietan. Nolako da Euskal Herriko antzerkigintzaren harrobia?

Ona, ona. Bilbo aldean hiru eskola daude, Gasteizen ere badago bat eta Donostian beste bat. Baina da bultzada gutxi ematen zaie, orduan, lan asko egiten dugu diru gutxiarekin eta ilusio askorekin. Gainera, oraindik ofizializatu gabe daude ikasketak, beraz, jendeak hau grina eta gogo asko duelako egiten du, baina ofizializazioa falta da. Hala ere, uste dut eskolok lan asko egiten dugula eta aktore dextente ateratzen direla hauetatik. Gauza da gero ez dela erreza eustea, Euskal Herria txikia da eta ekoizpen asko kanpotik ekartzen dituzte, eta hori arazo bat da. Gutxi gustatzen da hemengo antzerkia, baina gogoz eta ganora piska batekin gauzak lortzen dira.

- Flash!!!-eko aktore guztiak daramate lleorde txurra. Zergatik?

Alde batetik, aktore guztiak berdintzeko eta, bestetik, Andy Warholi omenaldi moduko bat egiteko. Andy Warholek errepikapenak egiten zituenez (Marilyn Monroerena adibidez), ba guk ere horrela egin dugu, Warholen errepikapenak egin ditugu. Antzezlanak horrela hasten da eta gero ileordea kentzen dute denek. Hasiera batean pertsona berdina dira denak eta gero bakoitzak bere pertsonaia antzeztzen du.

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdia.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapata: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapata: 14.15. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapata: 14.45. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenerik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapata-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiro. Zapata-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.18. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.13etatik 20.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

eguraldia

Euskal Meteorologia Agentziatik

DOMEKAN HOBERA

ZAPATUAN zeruak estalita jarraituko du eta euri ugaria espero da; prezipitazio handiak eta iraunkorrak. Fresko, iparraldeko haizearen eraginez.

DOMEKAN tenperaturak gora egingo du eta eguzkia ikusteko aukera izango da, baina oraindik zaparradak bota ditzake.

9 barixakua

NAGUSIEN HAMABOST.

18.00.- Nagusiendako dantzaldia Rhusell orkestrarekin eta sukaldaritzako lehiaketa sari banaketa. Astelenan.

OPERA

18.30.- 'La Boheme' (G. Puccini) operaren proiektzioa. Deol Foroak antolatuta. Portalean.

ARGAZKIL. MAIATZEAN

19.30.- Argazki digitaleko tailerra. Irakaslea: Gabriel Brau. Portalean.

ESKOLART. ANTZERKIA

20.30.- 'Flash!!!', Bizkaiko Bai Eszena - Formakuntza Zentruarekin (helduentzat). Sarrera: euro 2. Coliseoan.

BERTSOAK

21.00.- Mallabia-Gasteiz bertso desafioa (GR16 bertso ibilbidearen barruan). Afaria eta, ondoren, desafioa. Txartelak: 20 euro (15 euro langabetuek). Montekasinon.

10 zapata

ARGAZKIL. MAIATZEAN

10.00/14.00 eta 16.30/19.30.- Argazki digitaleko tailerra. Irakaslea: Gabriel Brau. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.00.- Musika Eskolako Eskusoinu eta Triki taldeak lagunduta.

1948-AN JAIOTAKOAK

21.30.- 60 urte betetzen dituztenen afaria. Arrate Hotelean.

11 domeka

ARGAZKIL. MAIATZEAN

10.00/14.00.- Argazki digitaleko tailerra. Irakaslea: Gabriel Brau. Portalean.

KONTZERTUA

13.00.- Zezenketa giroko pasodoble kontzertua, Cielito Bandaren eskutik. Untzagan.

ZEZENKETA

18.00.- Ignazio Zuloagaren omenezko XIV. Zezenketa. P. Hermosos de Mendoza, Luis Francisco Esplá eta Ivan Fandiño. Guardiola Domínguez zezenak. Zezen plazan.

12 astelehena

ESKOLART. ANTZERKIA

15.00.- Goizeko Izarra-San Miguel ikastetxea (Mutriku). Hezkuntza Esparruan.

PAILAZOAK

19.00.- Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen Trikitraka Trikitron saioaren grabazioa. Coliseoan.

13 martitena

IKASTEN

09.30.- Aulas Kutxa: 'Visiones del hombre'. Hizlaria: Jose Domingo. Hezkuntza Esparruan. **10.30/13.30 eta 16.00/ 18.30.-** Nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaroa. Portalean.

ESKOLART. ANTZERKIA

11.00 eta 15.00.- 'Handitan' (Bizkaiko Glu Glu Produktzioak, talde profesionala). Hezkuntza Esparruan.

PAILAZOAK

19.00.- Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen Trikitraka Trikitron saioaren grabazioa. Coliseoan.

EIBAR ZINE KLUBA

21.30.- 'Mataharis' (Zuz: Iciar Bollain). Sarrera: 3'5 euro. Coliseoan.

14 eguztena

OLIO BIRZIKLAKETA

09.30.- Erabilitako olioja sartzeko zerbitzua. Untzagan.

IPURTERRE

10.00.- Ipurterre ipuin lehiaketako sari banaketa ekitaldia. Hezkuntza Esparruan.

GURASOAK MARTXAN

17.00.- 'Cómo prevenir el fracaso escolar'. Andra Mari ikastetxean.

EIBAR CANCHA

19.00.- 'El humor como facilitador de cambio'. Hizlaria: Nagore Vázquez.

DANBORRADA

19.00.- Umeen entseguak. **20.00.-** Nagusien entseguak. Udalak Urkizun duen lokalean (Amalur ohia).

15 eguztena

SAN ISIDRO

11.00.- Meza, bertsolari eta trikitilariekin. Prozesioa Usartza Txistulari Bandarekin. Aurreskua Kezkarekin. Euskal produktuen dastaketa. **12.30.-** San Isidroetako VI. Aizkolari Xapelketa. **14.00.-** Bazkaria Kantabria jatetxean. **17.30.-** Idi-demak. Arraten (igotzeko autobusa 10.15-etan Ego gain geltokian).

IKASTEN

11.00.- Aulas Kutxa: 'Bítacora de Terranova: de los balnearios guipuzcoanos a los balnearios del siglo XX'. Hizlaria: Rosa García Orellán. Hezkuntza Esparruan. **11.30.-** Bideokonferentzia: 'Integración de los alumnos inmigrantes en la escuela'. Hizlaria: Félix Etxeberria Alberdi (EHUko irakaslea). Hezkuntza Esparruan.

ESKOLART. ANTZERKIA

15.00.- Zubi-Zahar ikastola (Ondarroa) eta Itzio BHI. Hezkuntza Esparruan.

ALZHEIMER TAILERRA

16.00.- 'Atsekabea Alzheimer gaixotasunean' (Ardura Paliatiiboetarako Euskal Elkartearen eskutik). Afagiko egoitzan (Ardantz, 1).

EGO EIBAR ZINE KLUBA

17.30 eta 21.00.- 14 kilometros (Zuz: Gerardo Olivares). Sarrera: euro 2. Hezkuntza Esparruan.

AMAÑAKO DANBORRADA

20.00.- Amañako danborradako entseguak. Amaña ikastetxean.

erakusketak

Maiatzean

Juan Angel Arrieta. 'Argia'. **Topalekuan.**

Javier Arcenillas. 'City Hope'. **Portalean.**

Gabriel Brau. 'Afrikako Argiak'. **Portalean.**

Leize-ikerle taldea. **Portalean.**

Deporreko Argazkilaritza Taldekoen erakusketak. **Ambigü eta Portalea tabernetan.**

Argizaiola Saria. **Depor tabernan.**

lehiaketak

Sanjuanak 2008

Eibarren kartel lehiaketa
Epea: **Maiatzaren 16ra arte.**
Informazioa:
Pegora eta Portalean.

Alkohol larregi edatearen kontrako pegatina lehiaketa
Epea: **Maiatzaren 16ra arte.**
Informazioa:
Pegora eta Portalean.

Eskola Agenda 08-09 azala diseinatzeko lehiaketa
Epea: **Maiatzaren 16ra arte.**
Informazioa:
Pegora eta Portalean.

Armeria Eskola Sariak
Epea: **Maiatzaren 19tik 23ra.**
Informazioa: Armeria Eskolan.

diru-laguntzak

UEUko matrikularako

Zenbatekoa: Matrikularen erdia.
Epea: **Maiatzaren 30era arte.**
Non: Pegoran.

ikastaroak

Argazkilaritza

G. Brau: 'El tratamiento en b/n del archivo digital'.
Noiz: **maiatzak 9, 10, 11.**
Prezioa: Doan.
Informazioa: Deporren (www.deporeibar.com).
Izen-ematea: argazkilaritza@gmail.com.

Fotogr. en 3D: Anaglifos

Noiz: **maiatzak 17.**
Prezioa: Doan.
Informazioa: Deporren (www.deporeibar.com).
Izen-ematea: argazkilaritza@gmail.com.

Discosana jailetan tailerra

Drogekin lotutako arriskuak gutxitzeko.
Hartzaileak: Txosna eta jai batzordeetako kideak.
Noiz: **ekainak 9 eta 11.**
18.00etatik 20.30etara.
Matrikula: Doan. Pegoran.
Epea: **Ekainak 5.**

sanerak salgai

ANTZERKIA. - 'Flash'. **Maiatzak 9**, 20.30.
ZINEA. - 'Mataharis'. **Maiatzak 14**, 21.30.
'4 meses, 3 semanas y 2 días'.
Maiatzak 27, 21.30.
MUSIKA
'Lora-jokoen mendeurrena'. **Maiatzak 17**, 20.00.
Ken Zazpi. **Maiatzak 23**, 22.00.

zinemazinema



untzaga "Algo pasa en Las Vegas"

ZUZENDARIA:

Tom Vaughan

AKTOREAK:

Cameron Diaz, Ashton Kutcher, Rob Cordry, Treat Williams...

Jack eta Joy las Vegasera joan dira asteburu pasa, bakoitza bere aldetik. Konturatu orduko ezkondu egin direla ikusiko dute. Dibortzioa berehala nahi dute, baina hiru milioi dolarreko saria irabaziko dute erabaki hori hartu bezain pronto...



coliseo "Mataharis"

ZUZENDARIA:


Iciar Bollain

AKTOREAK:


Najwa Nimri, Tristán Ulloa, María Vázquez, Diego Martín...

Ines, Eva eta Carmenek lan oso berezia dute: detektibe agentzia batean egiten dute lana; arazoak dituzten bikoteak espiazen dituzte, bikotekideetako batek horrela eskatuta. Baina zer gertatzen da euren bizitzan? Euren bikoteekin arazorik badute?

denborapasak



Aurkitu hemen 15 ARGITALETXEREN IZENAK



farmaziak

9. barixakua

GOIZEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

10. zapatua

GOIZEZ **Las Heras** (Sostoaararren, 20)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

11. domeka

GOIZEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

12. astelehena

GOIZEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

13. martitzena

GOIZEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

14. eguaztena

GOIZEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

15. eguena

GOIZEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

16. barixakua

GOIZEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

hildakoak

- **Luisa Sánchez Zarate.**
90 urte. 2008-IV-12.
- **Gaizka Sola Lasa.**
29 urte. 2008-IV-24.
- **Miguel Angel Arizmendi Ranero.**
59 urte. 2008-IV-25.
- **Felix Gómez Río.**
65 urte. 2008-IV-27.
- **Teresa Ormaetxea Zubikarai.**
80 urte. 2008-IV-28.
- **Teresa Rodríguez Alfayate.**
63 urte. 2008-IV-28.
- **Ofelia Maruri Atxa.**
84 urte. 2008-IV-29.
- **Jose M^a Bermúdez Artetxe.**
62 urte. 2008-IV-30.
- **Angelita Arizmendiarieta Galdos.**
82 urte. 2008-IV-30.
- **Cristina Ormaetxea Barinaga.**
89 urte. 2008-V-1.
- **Manuel Santomé Lema.**
67 urte. 2008-V-2.
- **Maria Alberdi Arana.**
91 urte. 2008-V-2.
- **M^a Teresa Korostola Ibarzabal.**
85 urte. 2008-V-2.
- **Josetxo Gorrotxategi Arriola.**
42 urte. 2008-V-5.

jaiotakoak

- **Mouad El Aissati.** 2008-IV-10.
- **Maria Aranbarri Sánchez.** 2008-IV-19.
- **Eiharne Carrasco Elizondo.** 2008-IV-20.
- **Gorka Morais Castaño.** 2008-IV-23.
- **Ainhize Egurrola Mugerza.** 2008-IV-25.
- **Markel Etxaide Rodríguez.** 2008-IV-28.
- **Naroa Urdanpilleta Taboada.** 2008-IV-29.
- **Unai Osa Manzisidor.** 2008-IV-29.
- **Iratí Anderez Aristi.** 2008-V-1.

Aurrekoaren SOLUZIOA

Askatasuna ikusten dut.

*... y son las gotas: ojos de infinito que miran al infinito blanco que las sirvió de madre.
... son partes del agua que has visto y que meditar lo que la muchedumbre de los ríos no sabe ...*

Federico García Lorca Federico García Lorca en eleania

Lor itzazu sei hileko pack-a

Fresh One soluzio bakarrek 3 lote + 6 hilerako Fresh Lens lenteak

eta eraman **poltsa hau opari**

Errebal, 14 20600 Eibar
GIPLUZKOA 943 202 137
plazaola@naturaloptics.com

natural optics
PLAZAOLA
naturaloptics.com

* Baldintzen inguruan galdetu ditzazue.

> klinika kortazar Gidabaimenak eta armabaimenak

ZEZEN BIDE AUTO ESKOLA

Auto, autobus, kamioi eta motorrentzako gida-baimenak
Teorikako irakaslea egun osoan

GIDA-BAIMENAK

Ego Gain, 4 - behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 20 34 45

EIBAR

ZEZEN BIDE

AUTO ESKOLA

**Klase teoriko
zein praktikoak**
norberak nahi
dituenean

Klase teorikoak
**ikusentzunezkoen
abantailak**
erabilita

Merkantziak
eta bidaiariak
garraiatzeko
nazioarteko
agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak

**GIDATZEKO
KARNET
GUZTIAK**

SOLOZABAL
autoeskolak

HELBIDE BERRIA
Estaziño kalea, 8

Tel. 943 70 23 84



ETESA

Tfnua. 943 12 19 73
Faxa 943 12 70 68
Bidebarrieta, 66 - 428 Postakutxa
20600 EIBAR
e-mail: eli-etsa@euskalnet.net.

**BULEGO
INSTALAZIOAK
OSO-OSORIK**